2. Hondakinak ekoizten eta garraiatzen dituzten enpresen inskripzioak.	**1.100**	2. Inscripciones de empresas productoras y de transportistas de residuos.
3. Izapidetutako mugaz gaindiko garraioen espedienteak.	**20**	3. Expedientes de traslados transfronterizos tramitados.
4. Jarraipen-dokumentuak.	**1.500.000**	4. Documentos de seguimiento.
5. Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemak.	**19**	5. Sistemas de responsabilidad ampliada de la persona productora.
6. Ontziak prebenitzeko enpresentzako prebentzio-planak.	**88**	6. Planes de prevención empresariales de envases.
7. Hondakin arriskutsuen ekoizleek hondakinak minimizatzeko azterlanak	**80**	7. Estudios de minimización de residuos de las personas productoras de residuos peligrosos.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
3. INGURUMENAREN BABESA KONTSERBAZIOA.		**3. PROTECCION DEL MEDIO AMBIENTE.**
1. Ingurumenaren kalitatea zaindu.		**1. Garantizar la Calidad Ambiental.**
• Airearen kalitatea zaindu eta Kontrolatzeko Sarea.		• Red de vigilancia y control de la calidad del aire.
1. Airearen Kalitatea kontrolatzeko Sarearen estazio finkoak.	**55**	1. Estaciones fijas de red de control de calidad del aire.
2. Airearen kalitatea neurtzeko ekipamendu mugikorrak.	**8**	2. Equipamientos móviles para medición de calidad del aire.
3. Airearen kalitatea neurtzeko analizadoreak eta ekipoak mantzentzea.	**212**	3. Mantenimiento de analizadores y equipos de medición de calidad del aire.
4. Balidatutako, web orrian ublikatutako eta aztertutako kutsatzaile eta parametro meteorologikoak.	**366**	4. Validación, publicación en la web y análisis de contaminantes y parámetros meteorológicos.
5. Airearen kalitatea neurtzeko ekipamendu mugikorrekin egindako konpainiak.	**11**	5. Campañas con equipamientos móviles de medición de la calidad del aire.
• Airearen kutsaduraren arloko araudiaren ondoriozko jarduerak.		• Actuaciones derivadas de la normativa en materia de contaminación atmosférica.
1. Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako baimenak.	**80**	1. Autorizaciones de actividades potencialmente contaminantes de la atmósfera.
2. Atmosfera kutsa dezaketen jardueren jakinarazpenak.	**100**	2. Notificaciones de actividades potencialmente contaminantes de la atmósfera.
3. Atmosfera kutsatzen duten industriako fokuen kontrola.	**400**	3. Control de focos industriales de contaminación atmosférica.
4. Konposatu organiko hegazkorren araudia bete beharreko instalazioak.	**220**	4. Instalaciones sometidas a la normativa de compuestos orgánicos volátiles.
5. Disolbatzaileen planen jakinarazpenak.	**220**	5. Comunicaciones de planes de disolventes.
• Kutsaduraren kontrol integratua.		• Control Integrado de la contaminación.
1. Kudeatutako espediente kopurua (baimen-aldaketak, instalazioetako aldaketengatik, araudien aldaketengatik, izen sozialaren aldaketarengatik, jarduerari uzteagatik, etab.).	**777**	1. Número de expedientes gestionados (modificación de autorizaciones por cambios en las instalaciones, por nueva normativa, por cambio de razón social, por cese …).
2. Jasotako ingurumena zaintzeko programak.	**236** **(PVA 19)** **44** **(PVA 20)**	2. Programas de vigilancia ambiental recibidos
3. Instalazio berrietarako bideratutako espediente kopurua.	**5**	3. Número de expedientes tramitados para nuevas instalaciones.
4. Jarduera Sailkatuak.	**228**	4. Actividades clasificadas
• Ingurumen-ebaluazioak. Plan, programa eta proiektuak.		• Evaluaciones ambientales. Planes, Programas y Proyectos.
1. Kontsultak.	**80**	1. Consultas.
2. Ingurumen-ebaluazio estrategikorako	**120**	2. Expedientes evaluación ambiental

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
espedienteak.		estratégica.
3. Ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorako espedienteak.	**70**	3. Expedientes evaluación de impacto ambiental.
4. Ingurumen arloko azterketen irismen-agiriak.	**30**	4. Documentos de alcance de estudios ambientales.
5. Ingurumen-inpaktuaren adierazpena	**30**	5. Declaraciones de impacto ambiental.
6. Ingurumen-adierazpen estrategikoak.	**10**	6. Declaraciones ambientales estratégicas.
7. Ingurumen-inpaktuaren txostenak.	**40**	7. Informes de impacto ambiental
8. Ingurumen-txosten estrategikoak.	**80**	8. Informes ambientales estratégicos.
9. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenen ondorengo jarduketak / Ingurumen-adierazpen estrategikoak (luzapenak, IZPak, etab.).	**30**	9. Actuaciones post de Declaraciones de impacto ambiental (DIA) /Declaraciones ambientales estratégicas (DAE) (prórrogas, PVAs, …).
• Zarata.		• Ruido.
1. Zarata mapen ondoriozko ekintza planak.	**15**	1. Planes de acción derivados de los mapas de ruido.
• Kutsatutako lurzoruen legeriaren ondorio diren jarduerak.		• Actuaciones derivadas de la legislación de suelos contaminados.
1. Lurzoruaren kalitatearen eta gaitasunaren arloko ebazpen kopurua.	**230**	1. Número de resoluciones en materia de calidad y aptitud del suelo.
2. Lurzoruaren kalitatearen inguruko adierazpena jasotzeko prozedura bete behar duten EAEko lurzoru hektareak.	**100**	2. Hectáreas de suelo de la CAPV que son objeto de los procedimientos de declaración de calidad del suelo.
3. Berreskuratutako lurzoru publikoak.	**10**	3. Suelos públicos recuperados.
2. Ingurumen-Politika Aurreratua.		**2. Impulsar una Política Ambiental Avanzada.**
1. Ingurumeneko Esparru Programa 2030.	**1**	1. Programa Marco Ambiental 2030.
2. Erosketa publiko berdea Eusko Jaurlaritzan.	**1**	2. Compra pública verde en Gobierno Vasco.
3. 2030erako Hezkuntza Agendaren Programan dauden Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleen ehunekoa.	**70%**	3. Porcentaje de alumnado de enseñanza obligatoria en el Programa de Agenda Educativa 2030.
4. 2030erako Hezkuntza Agendaren Programan dauden Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa.	**10%**	4. Porcentaje de alumnado de formación profesional en el programa de Agenda Educativa 2030.
5. Unibertsitatekoak ez diren ikastetxeek Eskolako Agenda 21 programa garatzeko dirulaguntzak.	**450**	5. Subvenciones a centros escolares no universitarios para desarrollo del programa Agenda 21 Escolar.
6. Eskola Jasangarritzat jotzen diren ikastetxeak.	**85**	6. Centros escolares reconocidos como Escuelas Sostenibles.
7. Haur eta gazteentzako Konferentzian (CONFINT) parte hartutako Ikastetxe Jasangarriak.	**20**	7. Centros escolares sostenibles participantes en la Conferencia Infanto Juvenil (CONFINT).
8. Aztertu Programaren parte-hartzaileak.	**25.000**	8. Participantes en el programa Aztertu.
9. Eskolako Agenda 21 udalekin koordinatu duten hezkuntza-zentroak.	**342**	9. Centros de educación que se han coordinado las Agenda 21 Escolares con sus

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
		ayuntamientos.
10. Ingurumen-hezkuntzaren inguruko albiste eta argitalpenen hartzaileak.	**3.500**	10. Personas receptoras de noticias y publicaciones de educación ambiental.
11. Iraunkortasunerako Hezkuntzaren arloko Berrikuntza, Gaikuntza eta Ezagutzaren Kudeaketa Zentroko jardueretan parte hartu dutenak.	**3.500**	11. Participantes en las actividades del Centro de Innovación, Capacitación y Gestión del Conocimiento en Educación para la Sostenibilidad.
12. Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzako Kanal Digitalera bisitak.		12. Visitas al Canal Digital de Educación Ambiental para la Sostenibilidad.
13. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Kanal Digitalaren edukiak deskargatzea.		13. Descargas de contenidos del Canal Digital de Educación Ambiental para la Sostenibilidad.
14. Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzaren arloko erakunde laguntzaileen kopurua.		14. Número de Entidades Colaboradoras en el ámbito de la Educación Ambiental para la Sostenibilidad.
15. Epean erantzundako ingurumeneko informazio-eskaeren ehunekoa.	**100%**	15. Porcentaje de solicitudes de información ambiental respondidas en plazo.
16. Sailaren webguneko ingurumen ataleko bisitak.	**600.000**	16. Visitas al área de medio ambiente del portal departamental.
17. INGURUMENA aldizkari elektronikoaren harpidedunak.	**2.000**	17. Suscriptoras y suscriptores al boletín electrónico INGURUMENA.
18. INGURUNETen ingurumenari buruzko informazioa duten erakundeen eta zentroen kopurua.	**500**	18. N. de entidades y centros con información ambiental en INGURUNET.
19. INGURUNETera sartu den prozedura-kopurua.	**70**	19. N. Procedimientos incluidos en INGURUNET.
20. Eskualdeen arteko ikaskuntza interaktiborako Europako proiektuetan parte hartzea, hala nola BID-REX proiektuan. Horren bidez, biodibertsitateari buruzko informazioaren erabilgarritasunaren eta erabakien arteko distantzia gainditzeko erabilgarriak izan diren ikuspegi, tresna eta metodoen trukea erraztu nahi da.	**1**	20. Participación en proyectos europeos de aprendizaje interregional interactivo como el proyecto BID-REX, que tiene como objetivo facilitar el intercambio de enfoques, herramientas y métodos que han resultado ser útiles para salvar la distancia existente entre la disponibilidad de información sobre biodiversidad y las decisiones.
21. Ingurumenari buruzko foro globaletan parte hartzea hainbat sareren bidez (adibidez, ICLEI, The Climate Group, EIONET sarea edo Garapen Jasangarrirako Gobernu Erregionalen Sarea).	**4**	21. Participación en los foros globales sobre medio ambiente a través de redes como ICLEI, The Climate Group, red EIONET o la Red de Gobiernos Regionales por el Desarrollo Sostenible.
3. Ingurune Naturalaren Kontserbazioa eta Biodibertsitatea.		**3. Conservación del Medio Ambiente y Biodiversidad.**
1. Euskal Autonomia Erkidegoko Naturaren Informazio Sistemarako lanak.	**6**	1. Trabajos para el Sistema de Información de la Naturaleza de Euskadi.
2. Ikerketa-erakundeekin sinatutako hitzarmenak.	**3**	2. Convenios firmados con entidades de investigación.
3. Natura-ondareari buruzko ikerketa aplikatuaren proiektuak bultzatzea.	**4**	3. Impulso a los proyectos de investigación aplicada sobre el patrimonio natural.
4. Herritarren parte-hartzea sustatzeko ekintzak, prestakuntzaren eta herritarren zientziaren ekimenen bidez.	**3**	4. Acciones para el fomento de la implicación ciudadana, mediante la formación y las iniciativas de ciencia ciudadana.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
5. Natura-ondarean aplikatutako ikerketa-proiektuak sustatzea: AGE-CCAA, Europarc, UICN, GBIO-GBIF bezalako batzordeak eta lantaldeak, etab.	**9**	5. Participación técnica en foros de encuentro y proyectos internacionales: Comités y Grupos de trabajo AGE-CCAA, Europarc, UICN, ETC.
6. INTERREG- Europa BID-REX "From Biodiversity data to decisión: improving the informed decisión processes in conservation regional policies" proiektuan parte hartzea.	**2**	6. Participación en el proyecto INTERREG-Europa BID-REX "From Biodiversity data to decisión: improving the informed decision processes in conservation regional policies".
7. Oro har natura-ondareari buruzko eta bereziki Natura 2000 Sareari buruzko programa bat eta komunikazio-ekintzak martxan jartzea.	**2**	7. Puesta en marcha de un programa y acciones de comunicación sobre el patrimonio natural en general y la Red Natura 2000, en especial.
8. Hainbat administrazio-prozeduratan planek eta proiektuek natura-ondarean duten afekzioari buruzko txosten teknikoak	**275**	8. Informes técnicos sobre la afección al patrimonio natural de planes y proyectos en diversos procedimientos administrativos.
• Ekosistemak babestea eta leheneratzea.		• Protección y Restauración de Ecosistemas.
1. EAEko natura-ondarearen zaintzarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema, Natura 2000 Sarea barne.	**7**	1. Sistema de vigilancia, seguimiento y evaluación del Patrimonio Natural de la CAPV incluyendo la Red Natura 2000.
2. Basafauna eta basaflorari buruzko ezagutza hobetzeko azterlanak, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa eguneratzea, eta haien kontserbazioa hobetzea.	**17**	2. Estudios para la mejora del conocimiento sobre la flora y fauna silvestres, actualización del Catálogo Vasco de Especies Amenazadas y mejora de su conservación.
3. Azpiegitura berdea, konektibitate ekologikoa eta ingurumena lehengoratzea lurralde-matrizean sartzea bultzatzea, natura-ondaare kontserbatzeko.	**1**	3. Impulso a la infraestructura verde, conectividad ecológica y restauración ambiental para la conservación del patrimonio natural en la matriz territorial.
4. Bitarteko genetikoetarako sarbideari buruzko Nagoya protokoloa aplikatzea eta hori erabiltzearen onuretan parte hartzea.	**4**	4. Aplicación del protocolo de Nagoya sobre el acceso a los recursos genéticos y participación en los beneficios de su utilización.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitate Estrategian jasotako helburuak eta ekintzak bultzatzea.	**2**	5. Impulso de los objetivos y acciones incluidos en la Estrategia Vasca de Geodiversidad.
6. Espezie exotiko inbaditzaileen ezagutza eta kudeaketa bultzatzea eta natura-ondarearen gainean eragin handiena dutenei lehentasuna ematea.	**2**	6. Impulso al conocimiento y gestión de especies exóticas invasoras, priorizando las que suponen un mayor impacto sobre el patrimonio natural.
7. Ekosistemak lehengoratzeko eta hobetzeko proiektu eta jarduketak sustatzea.	**1**	7. Fomento de proyectos y actuaciones de restauración y mejora de ecosistemas.
8. Hegazti-fauna babestea, linea elektrikoetako hilkortasunari dagokionez.	**4**	8. Protección de la avifauna en relación a la mortalidad en tendidos eléctricos.
9. Hegaztien eta Habitaten zuzentarauek dakartzaten betebeharrak betetzeari buruzko txostenak ematea.	**3**	9. Emisión de informes de cumplimiento de las obligaciones de las Directivas Aves y Hábitats.
10. Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko 9/2021 Lege berriaren betebeharrak inplementatzea: eremu babestuen kategoriak egokitzea, basa-espezieen euskal katalogoa berrikustea, habitatak zerrendatzeko eta katalogatzeko lanak egitea, etab.	**4**	10. Implementación de las obligaciones de la nueva Ley 9/2021, de conservación del patrimonio natural de euskadi: Adaptación categorías espacios protegidos, revisión catálogo vasco de especies silvestres, trabajos para el listado y catálogo de hábitats, etc.
11. Arriskuan dauden espezieak kudeatzeko planak: usapal europarra, otsoa eta kobako	**3**	11. Planes de gestión de especies amenazadas: tórtola europea, lobo y

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
kiropteroak.		quirópteros de cueva.
12. Espezie exotiko inbaditzaileen ezagutza eta kudeaketa bultzatzea, natura-ondarean eragin handiena dutenei lehentasuna emanez.	**2**	12. Impulso al conocimiento y gestión de especies exóticas invasoras, priorizando las que supongan un mayor impacto sobre el patrimonio natural.
13. Hegazti-fauna babestea, aire-nabigaziorako erregulazioak ezarriz.	**2**	13. Protección de la avifauna mediante el establecimiento de regulaciones a la navegación aérea.
14. Toki-erakundeei diruz lagundutako proiektuek biodibertsitateari egiten dioten ekarpenaren ebaluazioa.	**1**	14. Evaluación de la contribución a la biodiversidad de los proyectos subvencionados a las entidades locales.
15.- Hezeguneen Estatuko Plan Estrategiko berriaren lanetan parte hartzea.	**2**	15.- Participación en los trabajos del nuevo plan Estratégico estatal de humedales.
• Hegaztien eta habitaten zuzentarauak eraginkorki ezartzea.		• Implementación efectiva de las Directivas de Aves y Hábitats.
1. Natura 2000 Sarea bultzatzeko azterlanak eta lanak. KBEak eta Hegaztientzako BBEak kontserbatzeko helburuen eta neurrien dokumentuak aplikatzea.	**6**	1. Estudios y trabajos para el impulso de la Red Natura 2000. Aplicación de los documentos de objetivos y medidas de conservación ZEC y ZEPA.
2. Natura 2000 Sareko guneei buruzko informazio ofiziala eguneratzea eta hobetzea, Europako Batzordearen ebaluazioak normalizatzeko eta zuzentzeko.	**1**	2. Actualización y mejora de la información oficial sobre los espacios de la Red Natura 2000 para la normalización y corrección de las evaluaciones de la Comisión Europea.
3. Natura 2000 Sarea kontserbatzeko estatuko jarraibide berrietan parte hartzea, Batzordearen eskaerei erantzuteko eta klima-aldaketa kontserbazio-tresnetan sartzeko.	**1**	3. Participación en las nuevas Directrices estatales de conservación de la Red Natura 2000 para dar respuesta a las peticiones de la Comisión y para la incorporación del cambio climático en los instrumentos de conservación.
4. Gasteizko Mendi Garaiak, Ebro ibaia eta Jaizkibel KBEak handitzeko lanak.	**3**	4. Trabajos para la ampliación de las ZEC Montes Altos de Vitoria, río Ebro y Jaizkibel.
5. Autonomia-erkidegoetako batzorde teknikoetan eta koordinazio-lantaldeetan parte hartzea: Naturagune Babestua, flora eta fauna basatia, hezeguneak, etab.	**8**	5. Participación en los comités técnicos y grupos de trabajo de coordinación de la AGE-CCAA y Comunidades Autónomas: ENP, flora y fauna silvestre, humedales, etc.
• Urdaibaiko Biosferaren Erreserba.		• Reserva de la Biosfera de Urdaibai.
1. Urdaibaiko Patronatuaren Osoko Bilkurak.	**4**	1. Plenos del Patronato de Urdaibai.
2. Lankidetza Batzordearen bilkurak.	**4**	2. Reuniones del Consejo de Cooperación.
3. Urdaibaiko administrazio-kontsultei arreta eskaintzea.	**250**	3. Atención de consultas administrativas en Urdaibai.
4. Lurraldea zaintzeko proiektuak exekutatzea.	**2**	4. Ejecución de proyectos de custodia del territorio.
5. Garapen jasangarria sustatzeko ziurtapen-sistema ezartzea.	**1**	5. Implantación de un sistema de certificación para la promoción del desarrollo sostenible (CETS).
6. Basoko sektorerako konpentsazio-sistema bat garatzea, hazkunde azkarreko espezieen ordez espezie autoktonoak jartzeko.	**1**	6. Desarrollo de un sistema de compensaciones al sector forestal por la sustitución de especies de crecimiento rápido por especies autóctonas.
• Intereseko taldeekiko harremanak.		• Relaciones con grupos de interés.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. Ingurumen Aholkularitzako Batzordearen eta OCRUren (Hiri-hondakinen Koordinaziorako Organoa) bilerak.	**6**	1. Reuniones de Consejo Asesor de Medio Ambiente y el OCRU (Órgano Coordinación de Residuos Urbanos).
2. Nazioarteko foro eta sareetako presentzia..	**6**	2. Presencia en foros y redes internacionales.
3. Ingurumen-boluntariotzarako proiektuak, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek eta udal-erakundeek garatutakoak.	**10**	3. Proyectos de voluntariado ambiental desarrollados por entidades privadas sin ánimo de lucro y por entidades municipales.
4. Ingurumenaren aldeko boluntariotzan diruz lagundutako proiektuen parte-hartzaileak.	**500**	4. Participantes en los proyectos de voluntariado ambiental subvencionados.

PROGRAMA

5121 URAREN PLANGINTZA ETA ADMINISTRAZIOA

ARDURADUNA

05 EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN

INGURUMEN SAILBURUORDETZA

PROGRAMA

5121 PLANIFICACIÓN Y ADMINISTRACIÓN HIDRÁULICA

RESPONSABLE

05 DESARROLLO ECONÓMICO , SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

VICECONSEJERA DE MEDIO AMBIENTE

MEMORIA

Ekainaren 23ko 1/2006 Uraren Legeak bere II. Kapituluan, EAEko uraren politika gauzatzeko bitarteko nagusia izango den Uraren Euskal Agentzia, zuzenbide pribatuko ente publikoa, sortu eta arautzen du. Bestalde, abenduaren 18ko 240/2007 Dekretuak ente publiko horren estatutuak onartzen ditu; eta martxoaren 10ko 25/2015 Dekretuak, Uraren Euskal Agentziaren jardueren hasiera arautzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide pertsonalak eta materialak agentzia horri atxikitzeko baldintzak ezartzen ditu.

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea y regula en su Capítulo II Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, como Ente Público de derecho privado, llamado a constituirse en el instrumento central para llevar a cabo la política del agua en Euskadi. Por otra parte, el Decreto 25/2015, de 10 de marzo, aprueba los Estatutos del referenciado Ente Público y es el Decreto 233/2007 de 18 de diciembre, regula el inicio de actividades de la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, estableciendo las condiciones de adscripción de los medios personales y materiales de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la misma.

Agentzia izango da erakunde arduraduna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari uraren alorrean dagozkion eskumenen eremuan, eta beraz, 1/2006 Legearen 7. artikuluan ezarritako zereginak beteko ditu.

La Agencia, como entidad responsable en materia de aguas en el ámbito de las competencias que corresponden a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ejerce las funciones indicadas en el artículo 7 de la Ley 1/2006.

Agentziak 1/2006 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorren arabera gauzatuko du bere jarduera: bereziki, erabiltzaileen partaidetzarako printzipioaren arabera, bere zereginen eta eskaintzen duen zerbitzuaren eraginkortasuna bermatuz, eta beste administrazio batzuei dagozkien eskumenak direla-eta, elkarlaneko gobernantza eta erakundeen artean ahalik eta gehien koordinatuz, administrazio guztien arteko koordinaziorako eta lankidetzarako bideak garatzeko ahaleginetik abiatuta.

La Agencia desempeña su actividad de acuerdo con los principios generales señalados en el artículo 3 de la Ley 1/2006 y en particular, garantizando la máxima eficacia en el cumplimiento de sus funciones y en la prestación de sus servicios, de acuerdo con el principio de participación de las personas usuarias y con pleno respeto por las competencias que corresponden a otras administraciones, desarrollando una gobernanza colaborativa y la máxima coordinación institucional, desde el esfuerzo por desarrollar cauces de coordinación y colaboración entre todas las administraciones.

Testuinguru horren barruan, berebiziko garrantzia hartzen du Euskadiko uraren gaineko politikak, ur-segurtasuna, ur-masen egoera ekologiko ona eta uholdeen aurreko erresilientzia hobetu behar baitira, pertsonak eta ondasunak babesteko gertaera meteorologiko bortitzen aurrean, zeinak, gainera, bortitzago bilakatu daitezkeen klima-aldaketaren ondorioz. Eta hori guztia sistemak eta datuak digitalizatzeko trena berritzaileak garatuz egin behar da, zorroztasun eta eraginkortasun handiagoz jardun eta administrazio hurbila, azkarra eta gardena ahal izateko.

Dentro de este contexto adquiere especial relevancia la política del agua en Euskadi, en tanto que se ha de satisfacer la seguridad hídrica, el buen estado ecológico de las masas de agua, mejora de la resiliencia ante inundaciones para la defensa de las personas y bienes frente a los eventos meteorológicos adversos que pueden, además, ser radicalizados como efecto del cambio climático, y todo ello con el desarrollo de herramientas innovadoras de digitalización de los sistemas y de los datos que permitan una actuación más rigurosa y eficiente, y una administración cercana, ágil y transparente.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren konpromisoa da, hain zuzen, uraren

El compromiso del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, es el de

eskuragarritasuna eta kalitatea bermatzea, baita haren kudeaketa jasangarria ere, eta, gainera, gure ibaietako uraren % 70 kalitate onekoa edo oso onekoa izatea lortzea 2025ean. Horretarako, hau guztia egin behar da:

1.- Edateko uraren sareen kudeaketa eraginkorra optimizatu

2.- Ureztatze-sistemetan teknologia berriak aplikatu, uraren kontsumoa optimizatzeko

3.- Hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak eta -instalazioak hobetu.

4.- Hondakin-urek sortutako kutsaduraren kontrola, erregulazioa eta ikuskapena indartu, eta hondakin-uren tratamendua, balorizazioa eta berrerabilpena bultzatu.

5.- Ur-baliabideen erabilera eraginkorra eta uraren ekonomia zirkularra sustatu.

6.- Uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala hobetu.

7.- Hornidurarako, saneamendurako eta uholdeei aurre egiteko beharrezko azpiegiturak garatu.

8.- Teknologia berrien garapena sustatu.

Aipatutako guztiak oso kontuan izan behar du klima-aldaketak egoera berri baten eraginpean jartzen gaituela.

Ura funtsezko ondasuna da herritarrentzat, baita edozein sektoretako jarduera ekonomikorako ere, eta, horrenbestez, ur-hornidura segurua, aurreikusteko modukoa, eta, batez ere, kalitatezkoa izango dela bermatu behar da.

Klima-aldaketaren testuinguruan, bereziko garrantzitsu bilakatzen da uraren ziklo integralaren ekonomia zirkularra, hargunetik isurketara, baita berrerabilpena ere, ura biltegiratu, edangarri bihurtu, banatu, araztu eta berrerabili ahal izateko azpiegitura-multzo baten bidez lortzen dena. Kudeaketa-eredu integral baterantz eboluzionatu behar da, eta, zentzu horretan, Sailak, URAren bitartez, lan egingo du beharrezko adostasun instituzionala lortzeko hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren esparru-erregelamenduaren formulatze aldera.

Klima-aldaketak uholde-arriskuan duen eragina ere garrantzitsua da, batez ere uholde-hazkundean, puntako ur-emariei dagokienez errepikatze-denboretako. Horrek lurraldeko erabileren antolamenduari dagokionez prebentzio-lana egitera behartzen gaitu, baita politika hidraulikoaren eta hirigintzaren arteko hitzarmen eta koordinaziora.

Ura funtsezko baliabide naturala da, eta haren ekosistemak giza garapen jasangarrirako ez ezik, biziraupenerako ere ezinbestekoak dira. Abiapuntu hori aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bere proposamen estrategikoa zehaztu du Uraren Euskal Agentziak 2020-2024 legegintzaldi honetan jarduteko, aurrekontu honen bost ardatzetan:

Uraren Euskal Agentziaren helburu instrumental nagusiak honela zerrendatu daitezke:

garantizar la disponibilidad y calidad del agua y su gestión sostenible, además de lograr que el 70% del agua de nuestros ríos sea de calidad buena o muy buena en 2025, mediante:

1.- La optimización de la gestión eficiente de las redes de agua potable.

2.- Aplicando nuevas tecnologías en los sistemas de regadíos para la optimización del consumo del agua.

3.- Mejorando los servicios e instalaciones de saneamiento y depuración de aguas residuales.

4.- Reforzando el control, regulación e inspección de la contaminación producida por aguas residuales e impulsando el tratamiento, la valorización y la reutilización de las aguas residuales.

5.- Fomentando el uso eficiente de los recursos hídricos y la economía circular del agua.

6.- Mejorando la gestión integral del ciclo urbano del agua.

7.-Desarrollando las infraestructuras necesarias de abastecimiento, saneamiento y defensa frente a inundaciones.

8.- Impulsando el desarrollo de nuevas tecnologías.

Todo ello debe tener muy presente la nueva perspectiva a la que nos somete el cambio climático.

El agua es un bien esencial tanto para la ciudadanía, como para la actividad económica de cualquier sector y, por tanto, es necesario garantizar un suministro de agua seguro, previsible y sobre todo de calidad.

En el contexto de cambio climático cobra especial importancia la economía circular del ciclo integral del agua, desde la captación al vertido y la reutilización, mediante un conjunto de infraestructuras que permitan almacenar, potabilizar, distribuir, depurar y reutilizar el agua. Es preciso evolucionar hacia un modelo de gestión integral y en este sentido desde el Departamento y a través de URA, se trabajará para alcanzar el necesario consenso institucional en la formulación del Reglamento Marco del Ciclo Integral del Agua de Uso Urbano.

No es menos importante el efecto del cambio climático en la inundabilidad, sobre todo en el incremento de la torrencialidad, de los caudales punta para los diferentes periodos de retorno. Esto nos obliga, también, a la prevención en la ordenación de usos en el territorio, y a una concertación y coordinación entre la política hidráulica y el urbanismo.

Bajo el principio de que el agua, es el recurso natural esencial y sus ecosistemas, no son sólo imprescindibles para el desarrollo humano sostenible, sino para la propia supervivencia, el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco define su propuesta estratégica para la actuación de la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua para esta legislatura 2020-2024, en cinco ejes sobre los que está formulado este Presupuesto:

Los principales objetivos instrumentales de Uraren Euskal Agentzia-Agencia Vasca del Agua se pueden enumerar como sigue:

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Saneamendu eta arazketa-zerbitzuen bermea		**Garantía de los servicios de saneamiento y depuración**
1. Uraren zerbitzuak kudeatzen dituzten enteekin ur-hornidura, saneamendu eta arazketa-lanetan batera aritzea.		1. Colaboraciones con entes gestores de los servicios del agua en la realización de obras de abastecimiento, saneamiento y depuración.
• Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**32**	• Inversión realizada. Millones de euros.
Ekosistema urtarrak eta biodibertsitatea leheneratzea eta zaintzea		**Restauración y protección de ecosistemas acuáticos y biodiversidad**
1. Jabari Publiko Hidraulikoari eta Itsas-Lehorrekoari dagozkien administrazio-espedienteak izapidetzea.		1. Tramitación de expedientes administrativos relativos al Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
• Epe barruan izapidetutako espedienteen gehikuntza. Ehunekoa.	**15%**	• Incremento de expedientes tramitados en plazo. Porcentaje.
• Izapidetutako espedienteak. Gutxi gorabeherako zenbakia.	**3.200**	• Expedientes tramitados. Número estimativo.
2. Uren inguruko planei, programei eta proiektuei buruzko eta bestelako politika sektorialei (hirigintza, garraioa, etab.) buruzko txostenak egitea.		2. Emisión de informes sobre planes, programas y proyectos en materia de aguas y de otras políticas sectoriales (urbanismo, transporte, etc.).
• Epe barruan igorritako txostenen gehitzea. Ehunekoa.	**6%**	• Incremento de informes remitidos en plazo. Porcentaje.
• Egindako txostenak. Gutxi gorabeherako zenbakia.	**435**	• Informes emitidos. Número estimativo.
3. Jabari Publiko Hidraulikoa eta Itsas-Lehorrekoa lehengoratze lanei dagokien kanona.		3. Emisión de los cánones correspondientes en labores de recuperación del Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
• Kanonek eragindako diru-sarrerak. Milioi euro.	**7**	• Ingresos por cánones. Millones de euros.
• Diru-sarrera kanonak. Jasotako kanonen ehunekoa, likidatuekin alderatuta.	**95%**	• Ingresos cánones. Porcentaje ingresado respecto a los devengados.
4. Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko lanak		4. Trabajos de restauración y conservación cauces.
• Mantenimendu lanetan egindako inbertsioa. Milioi euro.	**6,2**	• Inversión realizada en actuaciones de restauración. Millones de euros.
• Zein erribera-luzeratan jarduten den. Kilometroak.	**210**	• Longitud de ribera sobre la que se actúa. Kilómetros.
5. Jabari Publiko Hidraulikoaren eta Itsas-Lehorrekoaren narriadura ekidetze aldera, zehapen-prozedurak izapidetzea.		5. Tramitación de procedimientos sancionadores para evitar el deterioro del Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
• Hasitako zehapen-espedienteen gehitzea. Ehunekoa.	**12%**	• Incremento de expedientes sancionadores iniciados. Porcentaje.
• Ur-hornidura eta saneamenduaren Esparruko Erregelamendua.		• Reglamento Marco de Abastecimiento y Saneamiento.
• Onespena. BAI/EZ	**BAI/SI**	• Aprobación. SI/NO
Segurtasun hidrikoa		**Seguridad hídrica**
1. Garapen bidean diren herrialdeetako proiektuentzako laguntza, ura eta saneamendua		1. Apoyo a proyectos en países en vías de desarrollo para actuaciones que faciliten el disfrute

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
izateko eskubidea erraztuko duten ekintzen barruan.		del Derecho al agua y al saneamiento.
• Egindako inbertsioa. Milioi euro	**0,2**	• Inversión realizada. Millones de euros.
2. Uraren zerbitzuak kudeatzen dituzten enteekin ur-hornidura lanetan batera aritzea.		2. Colaboraciones con entes gestores de los servicios del agua en la realización de obras de abastecimiento.
• Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**4**	• Inversión realizada. Millones de euros.
Uholdeen aurrean erresilientzia hobetzea		**Mejora de la resiliencia ante inundaciones**
1. Uholde-arriskua kudeatzeko 2007/60 Zuzentaraua berrikusteko prozesua.		1. Proceso de revisión de la Directiva 2007/60 de gestión del riesgo por inundación.
• Epeak betetzea. BAI/EZ	**SI**	• Cumplimiento de plazos. SI/NO
• Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**0,2**	• Inversión realizada. Millones de euros.
2. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren tratamendua.		2. Tratamiento del Plan de Gestión de Riesgo de Inundación.
• Epeak betetzea. BAI/EZ	**SI**	• Cumplimiento de plazos. SI/NO
3. Neurrien programan jasota dauden uraldien aurrean babesteko jarduketa estrukturalak.		3. Programa de medidas en actuaciones estructurales de protección ante avenidas.
• Egindako inbertsioa. Milaka euro	**22,9**	• Inversión realizada. Millones de euros.
4. Uholde arriskuaren aurrean Erabakitzen Laguntzeko Sistemaren mantenimendua eta garapena.		4. Mantenimiento y desarrollo del Sistema de Ayuda a la decisión ante el riesgo de inundación.
• Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**0,5**	• Inversión realizada. Millones de euros.
Digitalizazioa eta proiektu berritzaileak		**Digitalización y proyectos innovadores**
1. Ur-masen egoeraren jarraipena.		1. Seguimiento del estado de las masas de agua.
• Egingako inbertsioa.	**1,8**	• Inversión realizada. Millones de euros.
• EAEko ur-masen egoeraren jarraipenerako kontrol-puntuen kopurua.	**415**	• Puntos de control para el seguimiento del estado de las masas de agua de la CAPV. N.
2. EAEko demarkazio hidrografikoetan plan hidrologikoak ezartzea.		2. Implantación de los planes hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas de la CAPV.
• Epeak betetzea. BAI/EZ.	**SI**	• Cumplimiento de plazos. SI/NO
3. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Barneko Arroen eremuko Plan Hidrologikoa berraztertzeko prozesua.		3. Proceso de revisión del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental. Ámbito de las Cuencas Internas.
• Epeak betetzea. BAI/EZ	**SI**	• Cumplimiento de plazos. SI/NO.
4. Digitalizazioa espedienteak izapidetzean eta ur-masen gaineko inpaktuen kontrola.		4. Digitalización en la tramitación de expedientes y control de los impactos sobre las masas de agua.
• Inbertsioa. Milioi euro.	**0,7**	• Inversión. Millones de euros.

PROGRAMA

5151 PORTUAK

ARDURADUNA

05 EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

PORTU ETA ITSAS GAIETAKO ZUZENDARIA

PROGRAMA

5151 PUERTOS

RESPONSABLE

05 DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

DIRECTOR DE PUERTOS Y ASUNTOS MARÍTIMOS

MEMORIA

Autonomia-erkidegoaren eskumeneko portuetarako programatutako jarduketen helburua da portuetako agenteek sustatzen dituzten jarduera sozioekonomikoak bultzatu eta koordinatzea arrantzaren, merkataritzaren, kirol-nautikaren eta turismoaren sektoreetan, alde batera utzi gabe defizitaren helburuak Gobernu honetako sail guztiei eskatzen dizkien aurrekontu-doikuntzak.

Horretarako, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren zeregin nagusien artean dago EAEri atxikitako portu-azpiegituren behar berriak planifikatzea, gauzatzea, zabaltzea, kontserbatzea eta egokitzea, bai eta portuetan ontziei eta portuko jarduera-sektoreetako erabiltzaileei (arrantza, nautika, aisialdia eta merkataritza) zuzendutako zerbitzuak ematea ere. Zerbitzu horietako batzuk orokorrak eta mota guztietako ontzientzat komunak dira: itsasoko babesa, itsas eta lehorreko sarbidea, atrakatzea, ainguratzea, konponketa- eta hornikuntza-eremuak, portu-azalerak, kaiak eta abar egokitzea. Beste batzuk, ordea, berariazkoak dira, hala nola arrantza-flotarako direnak (izotz-fabrika, arrain-lonjak, sareetarako eraikinak, lanabesetarako biltegiak, etab.), kirol-jardueretarako direnak (kapitaintza, pantalanak, ainguratzeak), edo merkataritza-jardueretarako direnak (biltegiak, aterpeak, zabalguneak, etab.). Azken batean, behar besteko edukiera eta zerbitzu- eta babes-baldintza egokiak dituzten portu seguruak mantendu nahi dira, betiere instalazio horiek erabiliko dituzten pertsonengan pentsatuta. Horretarako, ezinbestekoa da programa honetan genero-ikuspegia txertatzea, herritar guztiei erantzun egokia emateko, irisgarritasun-baldintzak hobetzea, eta ingurumena behar bezala babesteko eta energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren jardunbideetan dugun erantzukizuna gogoratzea.

Garraioa da planetako emisio kutsatzaile gehienen arduraduna, eta, beraz, klima-aldaketaren aurkako estrategian aktiboki parte hartzeko betebeharra dugu, dagokigun heinean, itsas garraioari azpiegitura egokiak emanez, jasangarritasunari eta eraginkortasun energetikoari lehentasun handiena emateko konpromiso irmoari eutsiz.

Zuzendaritza honentzako ezinbesteko alderdi bat da portuetako babes-azpiegiturak sendotzea, azken urteotako

Las actuaciones programadas para los Puertos de competencia autonómica pretenden impulsar y coordinar las diferentes actividades socioeconómicas promovidas por los agentes portuarios, en el sector de la pesca, el comercio, la náutica deportiva y el turismo, sin dejar de lado los ajustes presupuestarios que el objetivo del déficit exige a todos los departamentos de este Gobierno.

Para ello, la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos tiene entre sus cometidos principales la planificación, ejecución, ampliación, conservación y adaptación a las nuevas necesidades de las infraestructuras portuarias adscritas a la CAV, así como el de prestar en puerto los servicios dirigidos a las embarcaciones, y a los usuarios y usuarias de los diversos sectores de actividad del puerto: pesquera, náutica-recreativa y comercial. Dichos servicios son tanto de carácter general: abrigo de la mar, acceso marítimo y terrestre, atraque, fondeo, áreas de reparación y aprovisionamiento, habilitación de superficies portuarias, etc., comunes a todo tipo de flota, como de carácter específico, tales como los destinados a la flota pesquera (fábrica de hielo, lonjas de pescado, edificios para redes, almacenes para pertrechos, etc.), a la deportiva (capitanía, pantalanes), o a la comercial (almacenes, tinglados, explanadas, etc.). En definitiva, se trata de mantener unos puertos seguros, con capacidad suficiente y con las condiciones de servicio y abrigo adecuadas, pensando siempre en las personas que harán uso de estas instalaciones. Es indispensable, a este fin, incorporar la perspectiva de género en este programa para poder dar una respuesta adecuada a toda la población, así como mejorar las condiciones de accesibilidad, y recordar nuestra responsabilidad en la adecuada protección del medio ambiente y en las prácticas eficientes desde el punto de vista energético.

Siendo el transporte el sector responsable de una gran parte de las emisiones contaminantes del planeta, tenemos la obligación de tomar parte activa en la estrategia contra el cambio climático en la parte que corresponde, dotando al transporte marítimo de las infraestructuras adecuadas, manteniendo el firme compromiso de dar máxima prioridad a la sostenibilidad y a la eficiencia energética.

Un aspecto primordial para esta Dirección es la necesidad de refuerzo de nuestras infraestructuras de abrigo

ekaitzetako olatuen altuera eta inpaktuaren energia izugarritik babesteko. Horregatik, hasitako bideari irmo heldu behar zaio, gutxieneko indargarriak jartzeko nagusiki 2014. eta 2016. urteetan pairatu genituen egoeren antzekoak saihes ditzaten. Urte horietan kalte larriak pairatu zituzten kanpoalderen dauden portu-azpiegiturek eta instalazioek, eta horien eraginkortasunak (Bermeon, Ondarroan, Orion eta Zumaian).

portuario frente a la extraordinaria energía de impacto y altura de oleaje de los temporales que vienen observándose en los últimos años. Por ello, hay que continuar en la tarea emprendida de una manera decidida, para contar con el refuerzo mínimo necesario para evitar situaciones como las sufridas principalmente en los años 2014 y 2016, que afectaron gravemente a la operatividad de las infraestructuras portuarias más expuestas (Bermeo, Ondarroa, Orio, Zumaia) y sus instalaciones.

Ildo horretan, aurreikusitako plangintza bete da, eta 2022ko ekitaldian amaitu dira Hondarribiko eta Getariako portuetako babes-dikeak sendotzeko obrak. Horrela, bi portu-instalazio horien segurtasuna eta eraginkortasuna bermatu dira, funtsezkoak baitira Gipuzkoako Lurralde Historikoan, arrantza-sektoreari dagokionez.

En este sentido, se ha cumplido con la planificación prevista y en el ejercicio 2022 se han concluido las obras de refuerzo de los diques de abrigo de los puertos de Hondarribia y de Getaria, garantizando de este modo la seguridad y la operatividad de estas dos instalaciones portuarias, claves en lo que al sector pesquero se refiere en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Ildo beretik, 2022ko ekitaldian, Plentziako portuko San Valentin dikearen muturra konpontzeko obra amaitu da. Bertan, dikearen muturraren zimenduen oinarrian zeuden egiturazko kalteak konpondu dira, etorkizunean matxura handiagoak saihesteko.

En esta misma línea, en el ejercicio 2022 se ha concluido la obra de reparación del morro del dique de San Valentín del puerto de Plentzia donde se han reparado los daños estructurales existentes en la base de la cimentación del morro del dique, con objeto de evitar mayores averías a futuro.

Babes-elementuekin jarraituz, 2022ko ekitaldian Ondarroako portuko babes-dikea sendotzeko obra lizitatu da, olatuek dikea hautsi ez dezaten edo, arrain-deskargen bolumenari dagokionez, EAEko portu nagusia denaren babes-dikeari atxikitako kaiaren gainean dauden azpiegiturak kaltetu ez daitezen. Lanak egiteko hamalau hilabeteko gutxi gorabeherako epea dago eta lizitazio-prozesuaren ondoren, 2023ko ekitaldirako helburua da obra hori esleitu eta egiten hastea. Obra handia denez, hurrengo aurrekontu-ekitaldira arte luzatuko da.

Continuando con los elementos de abrigo, en el ejercicio 2022 se ha licitado la obra de refuerzo del dique de abrigo del puerto de Ondarroa que pretende evitar que el oleaje provoque roturas del dique o que se puedan dañar las infraestructuras situadas sobre el muelle adosado al dique de abrigo del principal puerto de la CAPV en cuanto a volumen de descargas de pescado. La actuación cuenta con un plazo de ejecución estimado de catorce meses y, tras el proceso de licitación, es objetivo para el ejercicio 2023 adjudicar e iniciar la ejecución de dicha obra que, dada su magnitud, se prolongará hasta el siguiente ejercicio presupuestario.

Horren harira, bereziki nabarmendu behar da datozen hilabeteetan Zuzendaritzaren obra nagusia izango dena. Izan ere, 2022ko bigarren seihilekoan obrak esleitu eta hasi ondoren, 2023ko ekitaldirako helburua da Mutrikuko portuko babes-dikearen azken 100 metroak amaitzeko obrarekin jarraitzea. Ekitaldi horretan izango da obra gehiena, bai egikaritze-mailan, bai ekonomikoki, eta hurrengo aurrekontu-ekitaldiko lehen hiruhilekoan amaitzea aurreikusi da. Obra horrekin amaituko dira itsas sarbidea hobetzeko eta portuan agitazio-baldintza egokiak lortzeko jarduketak, Mutrikuko portu osoari beharrezko babesa emateko aukera emateko.

En este punto, cabe destacar especialmente la que va a ser la principal obra de la Dirección durante los próximos meses. Y es que, tras la adjudicación e inicio de las obras durante el segundo semestre del año 2022, es objetivo para el ejercicio 2023 continuar con la ejecución de la obra de finalización de los últimos 100 metros del dique de abrigo del puerto de Mutriku, ejercicio en el que se concentrará el grueso de la obra, tanto a nivel de ejecución como económicamente, y cuya finalización está prevista en el primer trimestre del siguiente ejercicio presupuestario. Con esta obra se culminarán las actuaciones para la mejora del acceso marítimo y para la obtención de las adecuadas condiciones de agitación en el puerto, permitiendo dotar del abrigo requerido a la totalidad del puerto de Mutriku.

Bi jarduketa horiek burututa, 2014ko denboraleen ondoren EAEko portuetako babes-dikeak indartzeko eta egokitzeko Zuzendaritza honek programatutako jarduketa nagusiak amaituko lirateke.

Con la culminación de estas dos actuaciones, finalizarían las principales actuaciones programadas por esta Dirección de refuerzo y adaptación de los diques de abrigo de los puertos de la CAPV puestos en marcha tras los temporales de 2014.

Horrez gain, garrantzitsua da aipatzea, nahiz eta Obraren Zuzendaritza Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoen bidez egingo den, bi obretan Obra Zuzendaritzak laguntza teknikoa beharko duela, eta horrek aukera ematen duela lanak jarraitzeko, ikuskatzeko eta gainbegiratzeko etengabe eta iraunkorki, funtsezko alderdia baita horien garrantzia eta konplexutasun teknikoa direla eta. Mutrikuren kasuan, gainera, obraren ezaugarriak kontuan hartuta, lanen ingurumen-zuzendaritza bat ere badago, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren

Además, es importante señalar que, a pesar de que la Dirección de Obra será realizada por medio de los servicios técnicos de la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos, ambas obras requieren de una asistencia técnica a la dirección de obra que permite realizar un seguimiento, inspección y supervisión permanente y constante de los trabajos, aspecto fundamental dada la magnitud y complejidad técnica de los mismos. En el caso de Mutriku, además, dadas las características de la obra, también se dispone de una dirección ambiental de los

adierazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla zorrotz zaintzeko.

Azkenik, babes-azpiegituren arloko proiektuak eta laguntza teknikoak idazteari dagokionez, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza honek helburu hau ezarri du datorren 2023rako: EAEko portuetan babes-dikeen jarraipena eta ikuskapena egiteko laguntza teknikoko kontratu bat lizitatzea eta formalizatzea, 2020tik 2021era bitartean kaiak ikuskatzeko egindako kontratua erreferentziatzat hartuta, azpiegitura horien egungo egoera ezagutzea eta etorkizuneko programazioa eta plangintza egitea ahalbidetzeko.

Gure atrakatze-azpiegiturak hobetzeari ere erreparatzen zaio gure programan. Ildo horretan, aipatzekoa da 2021ean EAEko portuetako kaiak ikuskatzeko eta aztertzeko lanak egin zirela. Azterlan horri esker, gure kaiek gaur egun duten kontserbazio-egoera ezagutu ahal izan da, eta, horrela, epe laburrera edo ertainera jarduteko ditugun beharrak lehenetsi dira. Azterlan horretatik abiatuta, 2022ko ekitaldian Orioko portuko arrantza-kaia sendotzeko proiektua idazten amaitu eta lizitatu egin da, eta hari lotutako obra hasi da. Jarduketa hori 2023ko ekitaldiko lehen hiruhilekoan amaitzea aurreikusi da, eta, horren bidez, kaiaren egonkortasuna hobetu nahi da, segurtasun- eta eraginkortasun-berme guztiak izango dituen azpiegitura bat izateko, etorkizunean erabilera berriak hartzeko aukera emateaz gain. Era berean, 2022ko ekitaldian, Donostiako portuan Jaranako kaia konpontzeko proiektua esleitu eta idatzi da. Proiektu horren obra elkartua 2023ko ekitaldian lizitatu eta hasi nahi da. Ildo beretik, 2021ean hasitako lanaren jarraipen gisa, kaiak konpondu eta sendotzeko hainbat proiektu idatzi nahi dira 2023ko ekitaldian, esate baterako, Getariako portuan kai batzuk sendotzeko proiektua edo Mutrikuko portuko barruko dikeen muturrak indartzeko proiektua.

Bestalde, atrakatzeko azpiegiturak indartzeko eta birmoldatzeko obrei dagokienez, 2023ko ekitaldian Ondarroako portuan Artibai itsasadarra bideratzeko kaia azpi-berritzeko obrak lizitatu eta egiten hasi nahi da, kaian kaltetutako eremuak egonkortzen eta birgaitzen direla bermatzeko, behin portu horretako arrain-lonja berria eraikitzeko lanak amaitu ondoren. Kaia azpi-berritzeko obra hori egiteko, gainera, obra horrek laguntza teknikoa emateko kontratu bat lizitatzea eta formalizatzea ekarriko du berekin, nahiz eta obra zuzentzeko lanak Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren bitartekoen bitartez egingo diren.

Bestalde, administrazioen arteko lankidetza-akordioen esparruan, programa honek partida bat aurreikusten du Debako itsasadarraren ezkerraldean dartsena bat garatzeko, Debako Estuarioa Antolatzeko Planaren barruan. Era berean, Eako portuan eskuineko hegala egonkortzeko partida bat aurreikusten du, baita Pasaiako portua berroneratzeko beste partida bat ere.

trabajos para una estricta vigilancia del cumplimiento de los requisitos establecidos por la Declaración de Impacto Ambiental del proyecto.

Finalmente, en lo que respecta a la redacción de proyectos y asistencias técnicas en materia de infraestructuras de abrigo, esta Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos se ha marcado como objetivo en este próximo 2023 la licitación y formalización de un contrato de asistencia técnica para el seguimiento e inspección de diques de abrigo en los puertos de la CAV que, tomando como referencia el contrato realizado para la inspección de muelles entre el año 2020 y 2021, permita conocer el estado actual de estas infraestructuras y posibilite la programación y planificación de inversiones futuras.

También son objeto de atención en nuestro Programa la mejora de nuestras infraestructuras de atraque. En esta línea, cabe señalar que en el ejercicio 2021 se llevaron a cabo los trabajos de inspección y análisis de los muelles de los puertos de la CAPV, estudio que ha permitido conocer el estado de conservación que presentan nuestros muelles en la actualidad y priorizar así nuestras necesidades de actuación a corto-medio plazo. A partir de este estudio, en el ejercicio 2022 se ha finalizado la redaccción del proyecto de refuerzo del muelle pesquero del puerto de Orio y se ha licitado y se ha iniciado la obra asociada al mismo. La finalización de dicha actuación está prevista en el primer trimestre del ejercicio 2023 y con ella se pretende mejorar la estabilidad del muelle y disponer así de una infraestructura con todas las garantías de seguridad y operatividad además de permitir, en un futuro, la posibilidad de albergar nuevos usos. Asimismo, en el ejercicio 2022 se ha adjudicado y se ha redactado el proyecto de reparación del muelle de la Jarana en el puerto de Donostia/San Sebastián cuya obra asociada se pretende licitar e iniciar durante el ejercicio 2023. En esta misma línea, como continuación del trabajo iniciado en 2021, se pretende poner en marcha la redacción de diversos proyectos de reparación y refuerzo de muelles durante el ejercicio 2023, como pudiera ser el proyecto de refuerzo de diversos muelles en el puerto de Getaria o el proyecto de refuerzo de los morros de los diques interiores del puerto de Mutriku.

Por otro lado, en lo relativo a obras de refuerzo y remodelación de infraestructuras de atraque, en el ejercicio 2023 se pretende licitar y comenzar la ejecución de las obras de recalce del muelle de encauzamiento de la ría Artibai en el puerto de Ondarroa, para garantizar la estabilización y rehabilitación de las zonas dañadas del muelle, una vez finalizada la ejecución de las obras de construcción de la nueva lonja de pescado de dicho puerto en 2022. Además, esta obra conllevará la licitación y formalización de un contrato de asistencia, a pesar de que las labores de Dirección de Obra vayan a ser asumidas a través de medios propios de la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos.

Por otro lado, en el marco de los acuerdos de colaboración entre Administraciones, este Programa contempla, encajado en el Plan de ordenación del Estuario de Deba, una partida para el desarrollo de una dársena en la margen izquierda de la ría de Deba. Asimismo, contempla una partida para la estabilización de la ladera derecha en el puerto de Ea, así como otra partida para la regeneración portuaria del puerto de Pasaia.

Horrekin lotuta, aipatzekoa da 2022aren amaieran bi lurralde historikoetako instalazio elektrikoak mantentzeko, argiztatzeko eta itsas balizak jartzeko zerbitzuari buruzko kontratu berriak formalizatu eta abian jarri direla. Kontratu berri horrek jatorrizkoa baino irismen handiagoa du, eta instalazioen mantentze prebentibo eta zuzentzaileko berezko jarduketez gain, instalazio horiek hobetzeko eta handitzeko jarduketak ere hartzen ditu barne, zerbitzu osoagoa emateko eta, horrela, berritzea ahalbidetzeko, 2022. urtean EAEko portuetako argiteria publikoaren auditoria energetikoaren jarraibideei jarraituz. 2023ko ekitaldiari begira, kontratu horiekin jarraituko da.

En este punto, cabe señalar que, a finales de 2022, se han formalizado y se han puesto en marcha los nuevos contratos relativos al servicio de mantenimiento de las instalaciones eléctricas, de alumbrado y balizamiento marítimos de ambos Territorios Históricos. Este nuevo contrato, de mayor alcance que el primitivo, además de las actuaciones propias de mantenimiento preventivo y correctivo de las instalaciones, también incluye actuaciones de mejora y ampliación de las citadas instalaciones, con objeto de prestar un servicio más completo que permitirá su renovación, siguiendo las directrices de la auditoria energética del alumbrado público de los puertos de la CAPV elaborada durante el año 2022. De cara al ejercicio 2023, se continuará con dichos contratos.

Bi lurralde historikoei aplika dakizkiekeen mantentze-kontratu orokorrekin jarraituz, 2022ko lehen seihilekoan, 40.000,00 eurotik beherako aurrekontua duten obra zibilak eta itsas obrak gauzatzeko izapidetutako esparru-akordio berriak formalizatu eta abian jarri dira. Kontratu berri horietako bakoitzak 24 hilabeteko iraupena du, eta aukera emango diote Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari EAEko portuak konpontzeko, eraberritzeko, hobetzeko edo egokitzeko obra txiki ugari egiteko. Obra horiek funtsezkoak dira portuen eguneroko eraginkortasunerako, eskaintzen duten izapidetze-arintasunagatik eta egikaritzeko malgutasunagatik. 2023ko ekitaldiari begira, kontratu horien esparruan obra eratorriak egiten jarraituko da.

Siguiendo con los contratos generales de mantenimiento aplicables a ambos Territorios Históricos, durante el primer semestre de 2022 se han formalizado y se han puesto en marcha los nuevos Acuerdos Marco tramitados para la ejecución de obras civiles y obras marítimas de presupuesto inferior a 40.000,00€. Estos nuevos contratos tienen una duración de 24 meses cada uno y permitirán a la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos ejecutar un importante número de obras menores de reparación, reforma, mejora o adecuación en los puertos de la CAV, fundamentales para la operatividad en el día a día de los puertos, por la agilidad de tramitación y flexibilidad de ejecución que ofrecen. De cara al ejercicio 2023, se continuará con realización de obras derivadas bajo el marco de dichos contratos.

Bestalde, portuetan sakonerak mantendu behar direnez, dragatze-lanetarako zuzkidura ekonomikoa izan behar dugu, indarrean dagoen dragatze-planetik eratorritako irizpideei jarraituz.

En otro orden de cosas, el necesario mantenimiento de calados en los puertos nos obliga a contar con una dotación económica para los dragados de los mismos siguiendo los criterios derivados del Plan de Dragados vigente.

2022ko lehen hiruhilekoan amaitu ziren bi jarduera garrantzitsu burutu ondoren (Orioko portua eta Zumaiako portuko bokalea dragatzea, eta Ondarroako portua dragatzea), Zuzendaritza honen asmoa da, 2023ko ekitaldian, Mundakako portuaren barruko dartsena dragatzea, haren sakonera-defizitaren egungo egoera kontuan hartuta, bai eta Lekeitiko portura sartzeko kanala eta Mundakako portuko aldi baterako ainguratze-eremua mantentzeko uda aurretik egin ohi diren dragatze-lanak egitea.

Tras haberse llevado acabo dos actuaciones muy relevantes que finalizaron durante el primer trimestre de 2022 (el dragado del puerto de Orio y de la bocana del puerto de Zumaia, así como el dragado del puerto de Ondarroa) durante el ejercicio 2023, es intención de esta Dirección efectuar el dragado de la dársena interior del puerto de Mundaka dado el estado actual de déficit de calado que presenta la misma, además de llevar a cabo los dragados habituales de mantenimiento del canal de acceso al puerto de Lekeitio y de la zona de fondeo temporal del puerto de Mundaka previo al periodo estival.

Gainera, lehen aipatutako dragatze-jarduketen zati garrantzitsu gisa, Zuzendaritza honek “2021-2023 bitartean Zuzendaritza honek EAEko portu-instalazioetan egindako dragatze-jarduketen jarraipena eta ingurumen-zaintza” egiteko kontratua indarrean mantenduko du 2023ko ekitaldian. Kontratu hori funtsezkoa da ingurumena eta itsas zorua babestuko direla bermatzeko.

Además, como parte importante de las actuaciones de dragado anteriormente mencionadas, esta Dirección mantendrá vigente durante el ejercicio 2023 el contrato que tiene por objeto el "Seguimiento y vigilancia medioambiental de las actuaciones de dragado llevadas a cabo por esta Dirección en las instalaciones portuarias de la CAV entre el periodo 2021-2023", aspecto fundamental en esta materia para garantizar una protección del medio ambiente y de los fondos marinos.

Eraikuntza-jarduketei dagokienez, garrantzitsua da esatea 2022ko ekitaldian Mutrikuko portuko etxolak zaharberritzeko lanak esleitu eta hasi direla, bai eta inguruko espazioak egokitzeko lanak ere. Obra horiek aldatutako proiektu baten xede izan dira. Proiektu hori 2022an idatzi eta onartu zen, eta obrak bertan behera utzi behar izan ziren; lanak berriro aktibatu ondoren, lanak 2023ko lehen hiruhilekoan amaitzea espero da, Mutrikuko portu-esparru horretan dagoen ondare arkitektoniko-

En lo relativo a actuaciones de edificación, es importante decir que durante el ejercicio 2022 se ha adjudicado y se ha iniciado la restauración de las casetas del puerto de Mutriku y adecuación de espacios adyacentes. Dichas obras han sido objeto de un proyecto modificado, el cual ha sido redactado y aprobado durante 2022 y que obligó a suspender las obras; tras la reactivación de los trabajos, la finalización se espera a lo largo del primer trimestre de 2023, con el objetivo de poner en valor el patrimonio

kulturalari balioa emateko eta ondare-elementu horiek dauden espazioak hobetzeko.

Azpimarratzekoa da, halaber, Getariako portuan dagoen Txoritonpe eraikinaren estalki laua zaharberritu izana. 2023ko ekitaldiari begira, eraikuntza-proiektu bat idatzi da. Helburua da obrak lizitatzea, esleitzea eta hastea, estalki hori birgaitzeko lanak osatzeko. Lanak 2021ean hasi ziren partzialki, estalki inklinatuaren sekzioa eraberritzeko lehen fasearekin. Horrela, portu horri espazio estali bat emango zaio portuko jarduera guztiak edo horiekin lotutakoak garatzeko.

Bestalde, portu-jabaria eta haren instalazioak gaur egungo errealitate eta mugikortasun-eskaera berrietara egokitzeko, Zuzendaritza honek azterlan bat eskatu du 2022ko ekitaldian, EAEko portu nagusietan ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen instalazioak izatearen bideragarritasuna identifikatu eta aztertzeko. Behin portu bakoitzeko erabiltzaile potentzialak, puntu horien tipologia eta ezaugarriak, eta proiektu batean horiei lotutako beharrezko azpiegitura zehaztuta, Zuzendaritza honen asmoa da 2023ko ekitaldi honetan gure portu nagusietan ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen sistema bat lizitatu eta hastea. Ildo beretik, Zuzendaritza honen helburua da 2023. ekitaldirako EAEko portu nagusietan ontzi elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko bideragarritasun-azterlan bat enkargatzea eta eskura izatea, birkargatzeko sare hori definitzeko eta garatzen hasteko, sistema berritzaile baten bidez emandako zerbitzua hobetzeko, portuaren eremuan emisioak, zaratak eta bibrazioak murrizten lagunduz.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea eta 254/2020 Dekretua onartu ondoren, Zuzendaritza hau bere higiezinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak ezartzeko aukera aztertzen hasi da, energia aurreztearen eta kontsumoa murriztearen arloan araudi horrek ezarritako helburua lortzeari begira. Hala, 2022ko ekitaldian, Zuzendaritza honek azterlan tekniko bat eskatu du autokontsumorako instalazio kolektiboen bideragarritasuna zehazteko, Hondarribiko, Getariako eta Bermeoko portuetako eraikinen kontsumo elektrikoa murrizte aldera. Zuzendaritza honen asmoa da eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezartzea ekitaldi honetan lizitatzea eta hastea.

Amaitzeko, adierazi behar da 2022ko ekitaldian Mutrikuko eta Elantxobeko portuetako komun publikoak ordezteko proiektuak idatzi direla. Portu-eremuan dauden erabilera publikoko komunen egungo egoera ikusita, Zuzendaritza honen helburua da instalazio horiek irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten instalazio autogarbigarriekin ordezteko prozesuari ekitea, portuaren funtzionaltasuna eta zerbitzua hobetze aldera, Mutrikuko eta Elantxobeko komun publiko berriak jartzea ekitaldi honetan lizitatuz eta instalatuz.

Halaber, 2023ko ekitaldi honetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako obren Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioaren

arquitectónico-cultural existente en este recinto portuario de Mutriku, así como la mejora de los espacios donde se asientan estos elementos patrimoniales.

Y también cabe destacar la rehabilitación de la cubierta plana del edificio Txoritonpe en el puerto de Getaria. De cara al ejercicio 2023, con un proyecto constructivo redactado, el objetivo es licitar, adjudicar e iniciar las obras de forma que se completen los trabajos de rehabilitación de esta cubierta, iniciados parcialmente el año 2021 con la primera fase de reforma de la sección de cubierta inclinada. Se dotará así a este puerto de un espacio cubierto para el desarrollo de todas las actividades portuarias o asociadas a las mismas.

Por otro lado, con el objetivo de adaptar el dominio portuario y sus instalaciones a las nuevas realidades y demandas de movilidad existentes en la actualidad, durante el ejercicio 2022 esta Dirección ha encargado un estudio para identificar y analizar la viabilidad de albergar instalaciones de puntos de recargar de vehículo eléctrico en los principales puertos de la CAPV. Una vez definidos los potenciales usuarios en cada puerto, la tipología y características de dichos puntos, así como la infraestructura necesaria asociada a los mismos en un proyecto, es intención de esta Dirección en este ejercicio 2023 licitar e iniciar la implantación de un sistema de puntos de recarga de vehículo eléctrico en nuestros principales puertos. En esta misma línea, es objetivo de esta Dirección para el ejercicio 2023 encargar y disponer de un estudio de viabilidad de instalar puntos de recarga para embarcaciones eléctricas en los principales puertos de la CAPV que nos permita definir y comenzar a desarrollar dicha red de recarga en aras a mejorar el servicio prestado, mediante un sistema innovador, contribuyendo a la reducción de emisiones, ruidos y vibraciones en el ámbito portuario.

Por otro lado, a raíz de la aprobación de la Ley 4/2019 y del Decreto 254/2020, ambos sobre Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, esta Dirección ha comenzado a analizar la posibilidad de implantar instalaciones de aprovechamiento de energías renovables en sus inmuebles e infraestructuras, con la mirada puesta en alcanzar el objetivo marcado por esa normativa en materia de ahorro y reducción del consumo energético. Así, en el ejercicio 2022 esta Dirección ha encargado un estudio técnico para determinar la viabilidad de instalaciones de autoconsumo colectivo en aras a reducir el consumo eléctrico de los edificios portuarios de los puertos de Hondarribia, Getaria y Bermeo siendo el propósito de esta Dirección licitar e iniciar la implantación de estas instalaciones solares fotovoltaicas durante este ejercicio.

Para finalizar, señalar que en el ejercicio 2022 se han redactado proyectos de sustitución de baños públicos de los puertos de Mutriku y Elantxobe. Dado el actual estado de los baños de uso público existentes en zona portuaria, es objetivo de esta Dirección iniciar un proceso de remplazamiento de dichas instalaciones por unas autolimpiables y que cumplan con la normativa vigente en materia de accesibilidad, mejorando su funcionalidad y servicio al puerto, mediante la licitación y ejecución de la instalación de los nuevos aseos públicos de Mutriku y Elantxobe durante este ejercicio.

Asimismo, se mantendrán en este ejercicio 2023 los contratos de servicios para la Coordinación de Seguridad y

zerbitzu-kontratuei eutsiko zaie, eta beharrezkoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokion kontratua formalizatzea eta luzatzea, ekitaldiko bigarren hiruhilekoan.

Portuko zerbitzuak hobeto emateko, portuko instalazioen kudeaketa hobetzen jarraituko da, hori guztia EAEko portu guztietako lehorreko aldetik eta ur-azaletik datozen hondakinak garbitzeko eta biltzeko zerbitzuaren kontratuen bidez, Bizkaian zein Gipuzkoan

2022ko hirugarren hiruhilekoan hasi zen Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekialdea garbitzeko kontratu berria, Bizkaiko Portuen Lurralde Zerbitzuaren Bilboko bulegoaren garbiketa barne hatzen duena. Era berean, 2023ko ekitaldian, Bizkaiko Lurralde Historikoaren mendebaldeari dagokion garbiketa-kontratuaren luzapena formalizatu eta hasi beharko da.

Jende gehien biltzen duten portuetan Zaintza eta Segurtasun Zerbitzuari eutsiko zaio, hala nola Donostian (Gipuzkoa) eta Ondarroan, Lekeition, Mundakan eta Bermeon (Bizkaia). Ildo horretan, adierazi behar da 2022ko azken hiruhilekoan Donostiako portuaren segurtasun- eta zaintza-kontratu berria formalizatu dela, eta beharrezkoa izango dela Ondarroako, Lekeitioko, Mundakako eta Bermeoko portuetako segurtasun- eta zaintza-kontratu berria ekitaldiko hirugarren hiruhilekoan lizitatzea, 2024aren hasieran formalizatu ahal izateko.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza honek portuko jabari publikoa kudeatzeko eta portuak antolatzeko hirigintza-planak izapidetzeko dituen eskumenen barruan, adierazi behar da Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketa puntualarekin, Elantxobeko Portua Antolatzeko Plan Bereziarekin eta Getariako Portua Antolatzeko Plan Bereziarekin jarraitzen dela.

Gainera, 2022ko bigarren seihilekoan, Zumaiako Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 1. xedapen-aldaketa idazteko kontratua formalizatu da.

2023ko ekitaldiari begira, plan horiek egiten eta izapidetzen jarraituko da.

Bestalde, Euskadiko Kirol Portuak - EKPri agindutako zereginen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legearen arabera, itsas kiroletako ontzietarako amarralekuak optimizatzen eta hobetzen jarraituko da. Hala, proiektu bat garatuko da Bermeoko Artza kaian pantalanak jartzeko, portu horretan amarralekuen kopurua handitze aldera. Era berean, itsas kiroletarako instalazioak egokitzeko, modernizatzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren inbertsioak egiten jarraituko da, eta portuko zerbitzuak optimizatzen jarraituko da, etengabeko hobekuntzaren irizpidearen eta ISO UNE 9001, 14001 eta 45001 arauen arabera.

Itsas portuko profesionalen prestakuntzari eta hobekuntzari dagokienez, Itsas Administrazioko Eskolak, Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari atxikitakoak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan jarraituko du.

Salud de las obras tanto en Bizkaia, como en Gipuzkoa, siendo necesario formalizar e iniciar la prórroga del contrato correspondiente al Territorio Histórico de Gipuzkoa en el segundo trimestre del ejercicio.

Para una mejor prestación de los servicios portuarios, se continuará en la línea de mejora de la gestión de las instalaciones portuarias, todo ello mediante los contratos del servicio de limpieza y recogida de residuos procedentes de la superficie terrestre y de la lámina de agua de todos los puertos de la CAPV, tanto en Bizkaia como en Gipuzkoa.

En el tercer trimestre del 2022 dio comienzo el nuevo contrato de limpieza de la zona este del Territorio Histórico de Bizkaia, en el cual incluye la limpieza de la oficina de Bilbao del Servicio Territorial de Puertos de Bizkaia. Asimismo, en el ejercicio 2023 será necesario formalizar e iniciar la prórroga del contrato de limpieza correspondiente a la zona oeste del Territorio Histórico de Bizkaia.

En los puertos más concurridos se mantendrá el Servicio de Vigilancia y Seguridad, como son el de Donostia en Gipuzkoa, y los de Ondarroa, Lekeitio, Mundaka y Bermeo en Bizkaia; En este sentido, señalar que durante el último trimestre de 2022 se ha formalizado el nuevo contrato de seguridad y vigilancia del puerto de Donostia y que será preciso licitar el nuevo contrato de seguridad y vigilancia de los puertos de Ondarroa, Lekeitio, Mundaka y Bermeo en Bizkaia durante el tercer trimestre del ejercicio para que se pueda formalizar a comienzos del 2024.

Dentro de las competencias que tiene atribuidas esta Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos en la gestión del dominio público portuario y la tramitación de planes urbanísticos de ordenación portuaria, señalar que se continúa con la 3ª modificación puntual del Plan Especial de Ordenación del puerto de Bermeo, el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Elantxobe y el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria.

Además, el segundo semestre de 2022 se ha formalizado el contrato que tiene por objeto la redacción de la 1ª modificación puntual del Plan Especial de Ordenación del puerto de Zumaia.

De cara al ejercicio 2023, se continuará con la elaboración y tramitación de dichos planes.

Por otro lado, dentro de las tareas encomendadas a Euskadiko Kirol Portuak - EKP, de acuerdo a la Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, se continuará optimizando y mejorando la capacidad de amarre para embarcaciones náutico-deportivas. Así, se desarrollará un proyecto para la colocación de pantalanes en el muelle de Artza en Bermeo, a fin de aumentar la capacidad de amarres en dicho puerto. Así mismo, se continuará realizando las inversiones necesarias para la adecuación, modernización y mantenimiento de las instalaciones de uso náutico-deportivo y se continuará optimizando la prestación de los servicios portuarios bajo el criterio de la mejora continua y las normas ISO UNE 9001, 14001 y 45001.

En cuanto a la formación y perfeccionamiento de las personas profesionales en el ámbito marítimo portuario, la Escuela de Administración Marítima, adscrita a la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos del Gobierno Vasco, seguirá con su línea de colaboración tanto con la Universidad del País Vasco como con la Universidad de Deusto.

Euskal Herriko Unibertsitateari dagokionez, jarraituko du "Saltillo" eskola-ontzia nabigagarritasun-baldintza egokietan mantentzeko ekarpena egiten, ontziak nautikako ikasleen praktikak egiten laguntzen baitu. Halaber, EHUrekin lankidetzan ere arituko da planifikatzen eta gauzatzen Itsas Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Biltzarra, Itsas Zuzenbidearen arloko eduki eguneratuenak dituelarik urtero egiten dena.

Respecto a la Universidad del País Vasco, continuará con la aportación en el mantenimiento de las adecuadas condiciones de navegabilidad del buque escuela “Saltillo”, que contribuye a la realización de las prácticas del alumnado de náutica. Igualmente, colaborará con la UPV en la planificación y ejecución del Congreso Internacional de Derecho Marítimo que anualmente se celebra, con los contenidos más actuales en el ámbito del Derecho Marítimo.

Deustuko Unibertsitateari dagokionez, 2000. urteaz geroztik hasitako ildoan lan egingo da, funtsean eta besteak beste, Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra bultzatzen jarraitzeko.

En lo que a la Universidad de Deusto se refiere, se trabajará en la línea marcada desde el año 2000, para continuar con el impulso, de manera fundamental y entre otras actuaciones, del Master en Gestión de Empresas Marítimo Portuarias y Derecho Marítimo.

Merkataritzako Marinaren arloko titulazio profesionalei dagokienez, lankidetzan jarraituko du inplikatutako alderdiekin, titulazio horiek ematea arautzen duten hitzarmenetan ezarritako nazioarteko edukiak bete ditzaten, batez ere SCTW hitzarmena.

En relación con las titulaciones profesionales en el ámbito de la Marina Mercante, continuará colaborando con las diversas partes implicadas con el fin de que éstas cumplan con los contenidos establecidos a nivel internacional en los diferentes convenios que regulan la expedición de estas titulaciones, especialmente el Convenio SCTW.

2023ko ekitaldian, Itsas eta Portu sektorea bultzatzen jarraituko da, hainbat elkarteri laguntzeko zenbait lerroren bidez. Horien artean, nabarmentzekoa da Euskal Ontzijabeen Elkarteko kideen ontzietan egiten diren nautikako ikasleen praktika profesionalak egiteko laguntza.

A lo largo del ejercicio 2023, se mantendrá el impulso al sector Marítimo-Portuario a través de varias líneas de apoyo a diferentes asociaciones entre las que destaca la ayuda para la realización de las prácticas profesionales del alumnado de náutica que se realicen en buques pertenecientes a los miembros de la Asociación de Navieros Vascos.

Ekitaldian, euskal portuak sustatzen jarraituko da, azoka eta lehiaketetan parte hartuz eta Basque Country marka baliatuz.

En el ejercicio se continuará con la labor de promoción de los puertos vascos a través de la participación en ferias y certámenes, y bajo la marca Basque Country.

2023an egingo da World Maritime Week bi urtez behingo azoka. Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak parte hartu izan du bertan, azken edizioetan Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzarekin batera, eta lankidetza hori 2023ko ekitaldian ere mantendu nahi da.

Se realizará en el año 2023 la feria de carácter bienal World Maritime Week, en la que ha venido participando tradicionalmente la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos, en las últimas ediciones de manera conjunta con la Dirección de Pesca y Acuicultura, en una colaboración que se pretende mantener durante este ejercicio 2023.

2023ko ekitaldian jarraituko da berrikusten eta eguneratzen Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatzen dituen portuetan aplikatzen diren planak, hala nola barneko larrialdi-planak, barruko itsas planak edo babes-planak.

Durante el ejercicio 2023, se continuará con la revisión y actualización de los diferentes planes que se aplican en los puertos gestionados por la Comunidad Autónoma de Euskadi como son los planes de emergencia interior, los planes interiores marítimos o los planes de protección.

Planek aldizkako ariketak eta simulakroak egitea aurreikusten dute, horien eraginkortasuna egiaztatzeko eta esku hartu behar duten pertsonei nolabaiteko entrenamendua emateko. Plan bi edo gehiago konbinatzen dituzten ariketak edo simulakroak egin ahal izango dira aldi berean, eta Gipuzkoan eta Bizkaian gauzatuko dira.

Los diferentes planes contemplan la realización de ejercicios y simulacros periódicos con el propósito de comprobar la efectividad de los mismos, así como de procurar un cierto entrenamiento a las personas llamadas a intervenir. Podrán simultanearse ejercicios o simulacros que combinen dos o más planes y se realizarán tanto en Gipuzkoa como en Bizkaia.

2023ko ekitaldian, portuetan gerta daitezkeen eta horretarako aurreikusitako plan bat edo gehiago aktibatzea dakarten gorabeherei erantzuteko beharrezko materiala berrikusi, eguneratu eta, hala badagokio, berrituko da.

En el ejercicio 2023, se revisará, actualizará y repondrá, en su caso, el material necesario para dar respuesta a los diversos incidentes que puedan producirse en los puertos y que lleven a la activación de uno o más planes de los previstos para nuestros puertos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. INBERTSIOAK PORTU AZPIEGITURA BERRIETAN, ETA LEHENDIK DAUDENAK MANTENTZEA		**1. INVERSIONES EN INFRAESTRUCTURA PORTUARIA Y MANTENIMIENTO DE LAS EXISTENTES**
• Portuetako azpiegiturak mantendu eta sendotzea, eta sakonera eta sarbide-baldintzak hobetzea.		• Mantenimiento y refuerzo de infraestructura portuaria y mejora de calados y condiciones de acceso.
1. Dikeen eta/edo kaien azpiak berritu eta sendotzea, ml-tan.	**1.000**	1. M.L. de recalce y refuerzo de diques y/o muelles y escolleras.
2. Sakonera hobetzeko dragatze-lanak, m3-tan.	**20.000**	2. M3 de dragado para mejora de calados.
• Portu-eraikinak eraiki, atondu eta eraberritzea.		• Construcción, habilitación y remodelación de edificios portuarios.
1. Eraikin kopurua.	**3**	1. Número de edificios.
2. Eraikitako azalera, m2-tan.	**100**	2. M2 de superficie construida.
2. ITSAS KIROLETAKO INSTALAZIOAK MANTENTZEA ETA KUDEATZEA		**2. MANTENIMIENTO Y GESTIÓN DE INSTALACIONES NÁUTICO-DEPORTIVAS**
• Kirol-dartsenak.	**16**	• Dársenas deportivas.
• Pantalanetan atrakaleku gehiago jartzea.	**100**	• Incremento dotación de atraques a pantalán.
3. PORTUETAKO LEHORREKO ALDEA ETA UR AZALA GARBITU ETA INSTALAZIOAK ZAINTZEA		**3. LIMPIEZA SUPERFICIES TERRESTRES Y DE LÁMINA DE AGUA Y VIGILANCIA DE LAS INSTALACIONES PORTUARIAS**
• EAEko portuetako lehorreko aldeak eta ur-azala garbitzea.		• Limpieza de superficies terrestres y lámina de agua de los puertos de la CAPV.
1. Garbitzeko eta hondakinak biltzeko kontratuak.	**3**	1. Contratos de limpieza y recogida residuos.
• Portuetako portu-instalazioak zaintzea.		• Vigilancia de instalaciones portuarias en puertos.
1. Zaintzarako kontratuak.	**2**	1. Contratos de vigilancia.
4. PROFESIONALAK ETA GRADUATU-ONDOKOAK ITSAS GAIETAN PRESTATZEA ETA ITSAS GAIAK SUSTATZEA		**4. FORMACIÓN DE PERSONAS PROFESIONALES Y POSTGRADUADAS EN EL SECTOR MARÍTIMO Y FOMENTO DEL SECTOR MARÍTIMO**
• Itsas Ardularitza Eskolaren jarduketak.		• Actuaciones de la Escuela de Administración Marítima.
1. Itsas arloko profesionalak birziklatzeko jardunaldiak.	**3**	1. Jornadas para el reciclaje de los y las profesionales del sector marítimo.
2. Itsas Garraioaren Sektoreko Argitalpenak.	**2**	2. Publicaciones Sector del Transporte Marítimo.
• Diru-laguntza EHUrentzat.		• Subvención a la Universidad del País Vasco (UPV).
1. «El Saltillo» ontziaren mantentzea.	**1**	1. Mantenimiento del buque “El Saltillo”.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
2. Itsas Zuzenbideari buruzko nazioarteko Biltzarra.	**1**	2. Congreso Internacional de Derecho Marítimo.
• Lankidetza beste unibertsitate batzuekin.		• Colaboración con otras universidades.
1. Diru-Laguntza Deustoko Unibertsitateari Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Master-erako eta bestelako ekintzetarako.	**1**	1. Subvención a la Universidad de Deusto para el Master en Gestión de Empresas Marítimo-Portuarias y Derecho Marítimo y otras actividades.
• Itsas/Portu sektoreko elkarteentzat sustapenerako diru-laguntza.		• Subvención a Asociaciones para promoción del Sector Marítimo/Portuario.
1. Nautikako ikasleek praktikak egitea.	**1**	1. Prácticas de alumnado de náutica.
2. Itsas sektoreko erabiltzaileen eta profesionalen elkarteak.	**4**	2. Asociaciones de personas usuarias y profesionales del sector.
3. Euskal Herriko portuak sustatzea.	**2**	3. Promoción de los puertos vascos.
• World Maritime Week bi urtez behingo azokan parte hartzea.	**1**	• Asistencia a la feria de carácter bienal World Maritime Week.
5. PORTU KUDEAKETAREN ETENGABEKO HOBEKUNTZA		**5. MEJORA CONTINUA DE LA GESTIÓN PORTUARIA**
• Portuetan indarrean dauden planak berrikustea eta onartzea.		• Revisión y Aprobación de los planes vigentes en los puertos.
1. Portuetako planak eta bitarteko materialak berrikustea.	**6**	1. Revisión de planes de los puertos y de los medios materiales.
2. Portuetan simulakroak eta ariketak egitea.	**2**	2. Realización de simulacros y ejercicios en los puertos.
• Portuetan itsas kutsadurari aurre egiteko ekipamenduak berrikusi eta eguneratzea.	**1**	• Revisión y actualización de equipos respuesta de contaminación marítima en los puertos.

PROGRAMA

5411 NEKAZARITZA, ETA ARRANTZA ALORREKO IKERKETA ETA GARAPENA

ARDURADUNA

05 EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

ELIKAGAIEN KALITATE ETA INDUSTRIAKO ZUZENDARIA

PROGRAMA

5411 INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGROPESQUERO

RESPONSABLE

05 DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

DIRECTOR DE CALIDAD E INDUSTRIAS ALIMENTARIAS

MEMORIA

Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza jasotzen dira programa honetan, eta helburua da EAEko nekazaritzako elikagaien eta basoen sektoreek bilakaera jasangarria izatea, epe ertain eta luzera. Helburu hori betetze aldera, ikerketa estrategikorako gaitasuna eta, ondorioz, ezagutza teknologikoa areagotuko dira, eta ikertzaileen eta teknologiaren esparruan lan egiten dutenen trebakuntza bultzatuko da. Sektorean berrikuntza areagotzea lortu nahi da. Berrikuntza, prozesu bat edo emaitza tekniko bat baino gehiago, gizarte-fenomenoa da, pertsonen eta gizarte osoaren sormena adierazten duena. Kontua ez da “soilik” produktu, teknologia edo prozesu “berriak” hobetzea; jasangarritasunera, kostuak aurreztera eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako eskemak eta jokaerak hartu behar dira kontuan hobekuntzak egiteko, hau da, nekazaritzako elikagaien sektoreak enplegu iraunkorra mantendu behar du.

Este Programa que engloba los conceptos de Investigación, Desarrollo e Innovación, tiene como objetivo final propiciar, en el medio y largo plazo, una evolución sostenible de los Sectores Agroalimentario y Forestal Vasco, desde la perspectiva económica, social y medioambiental. Para ello, se favorecerá el incremento de la capacidad investigadora estratégica y, consecuentemente, el del conocimiento tecnológico, y se favorecerá la formación de personal investigador, así como la de personal tecnólogo. Todo ello orientado al crecimiento de la innovación en el sector. La innovación, más que un proceso o un resultado técnico, es un fenómeno social que expresa la creatividad, tanto de las personas, como de la sociedad en su conjunto. No se trata, “simplemente”, de hacer mejoras en “nuevos” productos, tecnologías o procesos, se trata de que las mejoras obedezcan a esquemas y modos de hacer orientados hacia la sostenibilidad, ahorro de costes y mejora de la calidad de vida, lo que implica, sobre todo, que el sector agroalimentario pueda mantener un empleo sostenible.

Programa bat dator “Eusko Jaurlaritzaren 2023rako aurrekontuetako ekonomia-jarraibide”ekin, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasuna eta Ingurumena sailaren Plana eta Programekin, baita EBren 2020rako Estrategiarekin ere; horietan berrikuntza sustatzea eta industria- eta lehiakortasun-politika babestea lehentasunezko jardun-eremuak dira ekonomia suspertzeko prozesuan. Era berean, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren balio-katean digitalizazio adimenduna garatzeko esparru estrategikoarekin bat dator. Esparru hori, era berean, fabrikazio aurreratuko Industria 4.0 ereduan oinarritzen da.

El Programa está en sintonía con las “Directrices económicas presupuestarias para el año 2023 del Gobierno Vasco”, con los Planes y Programas del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, así como con la Estrategia 2020 de la UE, en los que el impulso a la innovación y el apoyo a la política industrial y de competitividad son áreas de actuación prioritarias en el proceso de reactivación económica. Asimismo, se alinea con el Marco Estratégico de desarrollo de la digitalización inteligente en la cadena de valor de la gastronomía y alimentación de Euskadi. Este marco, a su vez, se fundamenta en el Modelo Industria 4.0 de fabricación avanzada.

“Nekazaritza eta arrantza alorreko ikerketa eta garapena” izeneko programa horizontala da nekazaritzako elikagaien esparruan; izan ere, programa horren bidez ahalegin publikoa egin nahi da Euskadin nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren balio-kateak pisu handiagoa izan dezan, gaur egun BPGdren % 10,7 baita gutxi gorabehera. Azken batean, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren helburuak betetzen lagundu nahi da ikerketaren,

Con el Programa “Investigación y Desarrollo Agropesquero”, de carácter horizontal en el área agroalimentaria, se pretende hacer un esfuerzo público en aras a lograr un incremento del peso de la cadena de valor Agroalimentaria y Pesquera en Euskadi que a día de hoy representa aproximadamente un 10,7% del PIB. En definitiva, se trata de contribuir al cumplimiento de los objetivos del Programa de Gobierno de la XII. Legislatura

berrikuntzaren eta teknologiaren esparruan. Bereziki I. ardatzean ("Oparotasuna: enplegua eta suspertze ekonomikoa") sartutako batzuk, 3. eta 4. jardun-arloetan (Ikerketa eta Berrikuntza) (Elikadura eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena. Programak. Programa honek, halaber, Euskadiko 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren oinarri estrategiko eta ekonomikoak betetzen laguntzen du.

Adierazitako azken xede hori lortzera jotzeko, honako helburu instrumental hauek ezarri dira:

1. Teknologia-ezagutza handitzeko eta nekazaritzako elikagaien sektorearen beharrei erantzuteko moduko gaitasun ikertzailea inplementatzea, eta sektore horren teknologia etorkizuneko agertokietan garatzeko erakargarria izatea.

AZTI, NEIKER eta LEARTIKER (Basque Research Technology Allianceko kideak) bezalako ikerketa zentroekin lankidetzan, ikerketa-ildo estrategikoak prestatuko dira eta azpiegiturak modernizatzen lagunduko da, nekazaritzaren, arrantzaren, basogintzaren eta elikagaien industriaren ezagutza zientifikoetan aurrera egin ahal izateko.

Zentro horiekin elkarlanean aritu eta horiei laguntzeaz gain, enpresa eta ikerketa-taldeekin lehentasunezko harremanak izatea da garrantzitsua: hain zuzen, laneko oinarrizko helburuak lehen sektoreko ekoizpenari eta eraldaketaren industriari bideratuta dituzten enpresa eta taldeekin. Helburua lantaldeak eta teknikari taldeak egituratzea da: sailak berak lehentasuna ematen dien zientzia eta teknologiako emaitzei jarraipena emateko gai izango direnak, eta une bakoitzean zehaztu daitezkeen eremu eta beharrei lotuak: mahastizaintza eta ardogintza, basogintza, bioteknologia, baratzezaintza, elikagai ekoizpena, nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren hondakinak, agroekologia, ekoizpenaren jasangarritasuna edo/eta arrantzako baliabideen eraldaketa eta kudeaketa jasangarria.

2. I+G sustatu, transferitu eta hedatzea eta nekazaritzako elikagaien enpresa eta erakundeen lehiakortasuna hobetzea, teknologia garatuz.

Nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sektoreei lotutako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzan dauden laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programa 2023-2027 programazio-aldirakoan sartzen dira.

Lehen sektoreari loturiko alderdietan eta hortik behera dagoen balioen katean berezituta dauden ikerketa-unitateak egituratzeaz gain, programa honetan, beste ikerketa-zentro, profesionalen elkarte eta sektoreko enpresa batzuetan egiten diren ekimenei lagunduko zaie, nekazaritza eta arrantzako eta elikagaigintzako eremuan berrikuntzarekin lotura duten gaietan berariazko egitasmoak garatzeko.

I+G ekintzak gauzatzeko gaitasun nahikoa duten sektore-eragile guztiei berrikuntza sustatzea eta hedatzea da estrategia, bai eta I+G sailak garatzeko eta sortzeko laguntza ematea ere. Horretarako, proiektuen eta sustatzaileen ezaugarrien araberako laguntzak sustatuko dira.

en materia de Investigación, Innovación y Tecnología. Especialmente algunos de los comprendidos en el Eje I "Prosperidad: el empleo y la reactivación económica" en sus áreas de actuación 3 (Investigación e Innovación) y 4 (Alimentación y Desarrollo Rural y Litoral). Este Programa contribuye, asimismo, al cumplimiento de las bases estratégicas y económicas del próximo Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030.

Para avanzar en la consecución del objetivo final enunciado, se definen los Objetivos instrumentales siguientes:

1. Implementación de capacidad investigadora estratégica para incrementar el conocimiento tecnológico y responder a las demandas del sector agroalimentario, así como actuar de elemento tractor en su desarrollo tecnológico en escenarios de futuro.

En cooperación con Centros de Investigación como AZTI, NEIKER y LEARTIKER (miembros de Basque Research Technology Alliance), se trabajará en líneas de investigación estratégicas y se apoyará la modernización de infraestructuras para avanzar en el conocimiento científico en las áreas agraria, pesquera, forestal y alimentaria.

Además de colaborar y apoyar a los mencionados Centros, resulta prioritario mantener relaciones preferentes con empresas y grupos de investigación cuyos objetivos básicos de trabajo estén orientados a la producción primaria y a la industria de la transformación, con el objetivo de estructurar equipos humanos y técnicos capaces de proveer en continuidad resultados científico-tecnológicos priorizados por el propio Departamento y vinculados a las áreas y necesidades que se puedan determinar en cada momento: vitivinicultura, forestal, biotecnología, horticultura, producción alimentaria, residuos agroalimentarios y pesqueros, agroecología, sostenibilidad de la producción y/o transformación y gestión sostenible de los recursos pesqueros.

2. Promoción, Transferencia y Difusión de la I+D para la mejora de la capacidad competitiva de empresas y organizaciones agroalimentarias.

Las ayudas existentes en la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria en materia de Investigación, Desarrollo e Innovación en los sectores agroalimentario y pesquero se encuadran en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco aprobado para el periodo de programación 2023-2027.

Independientemente de la estructuración de Unidades de Investigación especializadas en los aspectos relacionados con el Sector Primario y su cadena de valor hacia abajo, se apoyarán desde este programa iniciativas en otros Centros de Investigación, asociaciones profesionales y empresas del sector que desarrollen proyectos específicos en materias relacionadas con la innovación en el área agropesquera y alimentaria.

La estrategia es la promoción y expansión de la Innovación a la totalidad de los agentes sectoriales con capacidad suficiente para ejecutar acciones de I+D, así como el apoyo en el desarrollo y creación de departamentos de I+D. A estos efectos, se promoverán ayudas en función de los proyectos y de las características de sus promotores.

3. Berrikuntza lankidetzan

Berrikuntza-egitasmoak egiten laguntzea da kontua, eta bultzada ematea lankidetza-egitasmo aitzindariak, produktu berriak, merkatu berriak, enpresetan ekoizpen-prozesu berriak eta antolatzeko sistema berriak garatzeari. Lehen fase batean, enpresak izango dira bultzatzaileak, eta teknologia berritzaileak txertatzea eta egokitzea izango da helburua.

Horrela, lankidetzako berrikuntza-proiektuak bultzatzen dira, 2023-2027 programazio-aldirako onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programan aurreikusitako laguntzen esparru-araudiak ezartzen duenaren arabera kudeatuko direnak.

4. Ikertzaileak trebatzea, honako hauen bitartez:

Laguntzen programa bat deituko da prestatzen ari diren ikertzaileentzat eta teknologoentzat. Prestakuntza-ereduak hobetu daitezen sustatu nahi da, pertsona horiek nekazaritza, arrantza eta basogintza sektoreetako ikerketa eta garapenari lotutako zereginetan lan egin dezaten. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko unibertsitate-zentroetan eta ikerketa-zentroetan emango da prestakuntza hori.

Prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzak orain arte bezala emango dira, hau da, gradu edo master bateko titulua duten pertsonei emango zaizkie. Horrela, nabarmen egingo du gora nekazaritza, basogintza, arrantza eta elikadura sektoreetan doktore diren pertsonen kopuruak; giza baliabideak prestatuz, gainera, berritzeko aukera gehiago izango dituzte.

5. Laguntza ematea elikagai-alorreko I+G+b-ko erakunderik garrantzitsuenei: EHU-UPV, Artxandako Ostalaritza Eskola eta Basque Culinary Center diru-laguntza izendunen bidez.

6. Programa horren helburu da, halaber, Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren barruan euskal elikagaien sektorea laguntzea eta bultzatzea. Hauek dira Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren helburuak:

1. Kalitate-, segurtasun- eta jasangarritasun-ezaugarriak dituzten bertako produktuen ekoizpena eta kontsumoa handitzea.

2. Industria transformatzaile bat bultzatzea, ekoizle eta bezeroekin konektatuta egongo dena eta konponbide osasungarriak emango dituena.

3. Euskal Gastronomiak Basque Country markarekin jauzi kualitatibo bat eman dezan erraztea.

4. Elikaduraren balio-kateko agente guztien lehiakortasunaren hobekuntza orokor bat sustatzea.

5. Euskadik munduan duen lekua eta ospea finkatzea, eta erreferentziako lurralde bihurtzea gastronomiaren eta elikaduraren arloan.

7. BIOEKONOMIA programaren helburua bioekonomiaren eremu jakin batzuetan proiektu pilotuak eta berrikuntza-proiektu erakusleak egiteko pizgarriak ematea eta bultzatzea da.

3. Innovación en Cooperación

Se trata de apoyar la elaboración de proyectos de innovación, animando al desarrollo de proyectos piloto cooperativos, nuevos productos, nuevos mercados, nuevos procesos productivos y nuevos sistemas organizativos en empresas que, en una primera fase, actúen como tractoras, de manera que incorporen y adecuen tecnologías innovadoras.

De esta manera se impulsan proyectos de innovación en cooperación, que se gestionarán según establece la normativa marco de las ayudas previstas en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco aprobado para el periodo de programación 2023-2027.

4. Formación de Personal Investigador.

Se convocará un programa de ayudas para personal investigador en formación y para tecnólogos y tecnólogas. El objetivo es promover una mejora en los modelos de formación que propicie la incorporación de estas personas a las tareas de Investigación y Desarrollo en los sectores Agropesquero y Forestal. Esta formación se desarrollará en centros universitarios y en centros de investigación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Las ayudas para personal investigador en formación mantendrán su orientación a las personas que estén en posesión de un título de grado y de máster, con el propósito de ampliar, de manera notable, el número de personas doctoradas en las diferentes ramas de los sectores agrario, forestal, pesquero y alimentario para, de esa manera, elevar su potencial de innovación desde la formación de recursos humanos.

5. Apoyo a organizaciones representativas de la I+D+i alimentaria como son la EHU-UPV, Escuela de Hostelería de Artxanda y Basque Culinary Center mediante la concesión de ayudas nominativas.

6. Este Programa también tiene como objetivo apoyar y potenciar el sector alimentario vasco en el marco del Plan Estratégico de Gastronomía. Los objetivos perseguidos por el Plan Estratégico de Gastronomía (PEGA) son:

1. Aumentar la producción y consumo de productos locales con atributos de calidad, seguridad y sostenibilidad.

2. Potenciar una industria transformadora conectada con productores y clientes, aportando soluciones saludables.

3. Facilitar un salto cualitativo al sector de la Gastronomía vasca bajo la marca Basque Country.

4. Lograr una mejora generalizada de la competitividad de todos los agentes de la Cadena de Valor alimentaria.

5. Consolidar el posicionamiento y notoriedad de Euskadi a nivel mundial convirtiéndolo en territorio de referencia en materia de alimentación y gastronomía.

7. El programa BIOECONOMIA tiene por objeto ayudas dirigidas a estimular e incentivar la realización de proyectos piloto y proyectos demostrativos de innovación en determinados ámbitos de la bioeconomía.

8. Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren balio-katean DIGITALIZAZIO adimenduna garatzeko esparru estrategikoarekin bat etorriz, nekazaritzako elikagaien sektorean digitalizazio-ekimenak bultzatzea eta Euskadin ezartzeko bokazioa duten enpresa berritzaileak erakartzea ezarri da helburutzat. Nagusiki, kudeaketa-jarduerak digitalizatzearekin lotutako ekimenak bultzatu nahi dira, hala nola logistika, stocken kontrola, xahutzea eta merkaturatzea.

9. Elikaduraren eta zuraren balio-kateetako enpresen tamaina txikia dela eta, beharrezkoa da negozio txikiak bultzatzea berrikuntzaren eta ekintzailetza eta barne-ekintzailetza sustatzera bideratutako ekintzen bidez, enpresa-ekimen berriei behar duten laguntza eskainiz. Horretarako, ONEKIN programari eutsi zaio. Programa horrek enpresei laguntzeko laguntzak ematen ditu, honako hauek kontratatzeko: negozioa abian jartzeko edo garatzeko aholkularitza-zerbitzuak, I+G proiektuen bideragarritasun-azterlanak, patenteak eta beste aktibo ez-material batzuk lortzeko, baliozkotzeko eta defendatzeko azterlanak, elikagaien segurtasunaren arloko ziurtapen-estandarrak eta berrikuntzaren eta digitalizazioaren arloko aholkularitza-lanak.

10. Eta, azkenik, HANDITU INNOVA izeneko programa bat mantentzen da, nekazaritza-ekoizpenaren berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handiei laguntzean datzana. Horren bidez, tokiko eta eskualdeko ekonomiak bultzatu eta eraldatu nahi dira, berrikuntza teknologikoan inbertsio handiak eginez, ekoizpen-kostu zuzenak murrizteko, ustiategiaren lehiakortasuna hobetzeko eta negozio-aukera berriak sortzeko.

8. En sintonía con el Marco Estratégico de desarrollo de la DIGITALIZACIÓN inteligente en la cadena de valor de la gastronomía y alimentación de Euskadi, se fija como objetivo el impulso de iniciativas de digitalización en el sector agroalimentario, así como la captación de empresas innovadoras con vocación de implantación en Euskadi. Se pretende apoyar, principalmente, iniciativas relacionadas con la digitalización de actividades de gestión tales como la logística, el control de stocks, el despilfarro y la comercialización.

9. Dado el escaso tamaño de las empresas de las cadenas de valor de la alimentación y de la madera, es necesario impulsar pequeños negocios a través de la innovación y acciones encaminadas a apoyar el emprendimiento e intraemprendimiento, ofreciendo a las nuevas iniciativas empresariales el apoyo que necesitan. Para ello se mantiene el programa ONEKIN con ayudas de apoyo a las empresas para la contratación de servicios de consultoría y/o asesoramiento ligados a la puesta en marcha del negocio o su desarrollo, la realización de estudios de viabilidad de proyectos de I+D, de obtención, validación y defensa de patentes y otros activos inmateriales, obtención de estándares de certificación en materia de seguridad alimentaria, así como trabajos de consultoría en materia de innovación y digitalización

10. Y finalmente, se mantiene un programa denominado HANDITU INNOVA, que consiste en apoyar a grandes inversiones relacionadas con la innovación tecnológica en la producción agraria. Con ello se aspira a traccionar y transformar economías locales y comarcales mediante grandes inversiones en innovación tecnológica para reducir los costes directos de producción, la mejora de la competitividad de la explotación y la generación de nuevas oportunidades de negocio.

617		Informazioa prozesatzeko ekipamenduak *Equipos para procesos de información*	50.000	
		ZUZKIDURAK, GUZTIRA ***TOTAL DOTACIONES***	**13.572.978**	**13.572.978**

565 - IHOBE SA
IHOBE, S.A.

AURREKONTUA. BALIABIDEAK
PRESUPUESTO. RECURSOS

EUROAK / *EUROS*

KAK *CAC*	PARTIDA *PARTIDA*	BALIABIDEAK *RECURSOS*	AURREKONTUA *PRESUPUESTO*	GUZTIZKOAK *TOTALES*
3		**TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO SARRERAK** ***TASAS, PRECIOS PÚBLICOS Y OTROS INGRESOS***		**300.000**
34		**Salmentak eta zerbitzu-prestazioak** ***Ventas y prestaciones de servicios***		**45.000**
341		Zerbitzu-prestazioak *Prestaciones de servicios*		45.000
	00/05	Ekoetxeak. *Ekoetxeak.*	15.000	
	99/00	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. *Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*	30.000	
36		**Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak** ***Otros ingresos de derecho privado***		**255.000**
360		Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak *Otros ingresos de derecho privado*		255.000
36099		Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak *Otros ingresos de derecho privado*		255.000
	00/09	CAR. *CAR.*	95.000	
	00/10	Basque Ecodesign Center. *Basque Ecodesign Center.*	160.000	
4		**ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK** ***TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES CORRIENTES***		**13.022.978**
40		**EAEko sektore publikotik** ***Del sector público de la CAE***		**13.022.978**
400		Administrazio Orokorretik *De la Administración General*		13.022.978
	00/22	EAEko Administrazio Orokorra. Aurreko ekitaldiak. LIFE eta aurreko ekitaldietako dirulaguntzak. *Administración General de la CAE. Ejercicios anteriores. LIFE y subvenciones en curso de ejercicios anteriores.*	2.375.000	
	99/00	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. *Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*	10.647.978	
7		**KAPITAL-ERAGIKETETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK** ***TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES DE CAPITAL***		**250.000**
70		**EAEko sektore publikotik** ***Del sector público de la CAE***		**250.000**
700		Administrazio Orokorretik *De la Administración General*		250.000
	99/00	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. *Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*	250.000	
		BALIABIDEAK, GUZTIRA ***TOTAL RECURSOS***	**13.572.978**	**13.572.978**

1. ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK

Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe SA, 1983an eratu zen.

Haren estatutuetan jasotakoaren arabera, hau da Ihobe sozietatearen xedea:

Ingurumenaren arloko sail eskudunaren zuzendaritzapean, Euskal Autonomia Erkidegoan egungo eta etorkizuneko ingurumen-politika garatzen eta jasangarritasunaren kultura hedatzen laguntzea, gai hauekin lotuta, batik bat: klima-aldaketa, biodibertsitatea, lurzoruaren eta airearen kalitatea, hondakinak, ekoizpen eta kontsumo jasangarria eta hiri-ingurumena.

Ingurumenaren arloko sail eskudunari ingurumen-politikak diseinatzen eta ezartzen laguntzea, baita ingurumenarekin lotutako kudeaketa-, kontrol- eta berreskuratze-lanetan ere.

- Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenarekin lotutako ezagutza sortu eta ezagutaraztea, eta ekoberrikuntza sustatzea.
- Administrazio publikoekin, enpresekin eta herritarrekin batera lan egitea, Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen-arloko helburuak sustatzen dituzten jarduerak gauzatzeko.
- Ingurumenaren arloko sail eskudunaren erakunde lankide gisa, sail horrek emandako dirulaguntzak kudeatzeko jarduerak egitea, indarrean dagoen araudiari erabat men eginda.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babestearekin eta hobetzearekin lotutako beste edozein.

Sozietatearen kapitala honela banatzen da:

1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

La Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A. se constituyó en 1983.

De acuerdo con sus estatutos, el objeto social de Ihobe es el siguiente:

Bajo las directrices del Departamento competente en materia de medio ambiente, contribuir al desarrollo de la política ambiental actual y futura y la extensión de la cultura de la sostenibilidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, principalmente en materia de cambio climático, biodiversidad, calidad del suelo y del aire, residuos, producción y consumo sostenible y medio ambiente urbano.

Apoyar al Departamento competente en materia de medio ambiente en el diseño e implantación de las políticas ambientales, así como en las actuaciones en materia de gestión, control y recuperación ambiental.

- Generar y divulgar el conocimiento ambiental, así como fomentar la ecoinnovación en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Cooperar con las Administraciones Públicas, las empresas y la ciudadanía para la realización de actividades que impulsen los objetivos ambientales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Realizar actuaciones como entidad colaboradora del Departamento competente en materia de medio ambiente, para la gestión de las subvenciones que por dicho Departamento se otorguen, con pleno sometimiento a la normativa en vigor.
- Cualesquiera otras que tengan relacionadas con la protección y mejora del medio ambiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El capital social se distribuye de la forma siguiente:

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
EAEko Administrazioa Administración de la CAE	100
GUZTIRA TOTAL	100

Ihobek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Sozietate Publikoak, Bilbon kokatutako lantokia du (Bizkaia plaza).

Ihobe, Sociedad Pública del Departamento Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, cuenta con un centro de trabajo ubicado en Bilbao

Ihobe ingurumena kudeatzeaz eta babesteaz arduratzen da. Horretarako, aldaketei aurrea hartzen die eta ingurumen-arazoak hautematen ditu; halaber, ideiak, proiektuak eta araudiak proposatzen ditu, eta nazioarteko eragileekin lankidetza estuan aritzen da.

Ihobek ingurumena hobetzea du helburu, ingurumen irizpideak politika sektorialetan txertatuz, gure herrialdearentzat eta haren erakundeentzat lehiabalio jasangarria duen elementu gisa.

Ihobek erantzukizuna eta eredugarritasuna, aurre hartzeko gaitasuna, eta berritzaile izatekoa, izaera kolaboratzailea eta malgutasuna izan nahi ditu bereizgarri.

(plaza Bizkaia).

Ihobe se dedica a gestionar y preservar el medio ambiente, para lo cual se adelanta a los cambios y detecta los problemas ambientales. A su vez, propone ideas, proyectos y reglamentos y colabora estrechamente con agentes internacionales.

Ihobe tiene como propósito mejorar el medio ambiente integrando los criterios ambientales en las políticas sectoriales como elemento de valor competitivo sostenible para nuestro país y sus organizaciones.

Ihobe pretende caracterizarse por la responsabilidad y ejemplaridad, anticipación e innovación, espíritu colaborativo y flexibilidad.

2. 2022AN GAUZATUTAKO EKINTZA NAGUSIAK

2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2022

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
HE1. Klimaren aldeko ekintza		**OE1. Acción por el clima**
Ihobek ekintza klimatikoa bultzatu du, arlo horretako politikak hedatzen lagunduz eta klima-aldagaia politika sektorialetan txertatuz. 2030erako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana hedatzea izan da jarduera-esparru nagusia, EVErekin koordinatuta. Berotegi-efektuko gasen emisioak eta klima-aldaketak lurraldean dituen ondorioen monitorizazioa kontabilizatu ditu, sektorekako klima-arriskuaren analisiaren bidez.		Ihobe ha impulsado la acción climática apoyando el despliegue de las políticas en esta materia, e integrando la variable climática en las políticas sectoriales. El despliegue del Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2030, ha sido el marco principal de actuación en coordinación con el EVE. Se han contabilizado las emisiones de GEIs y la monitorización de los efectos de cambio climático en el territorio, mediante análisis de riesgo climático sectoriales.
Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Legea izapidetzeko prozesua babestu da, besteak beste, 2050erako berotegi-efektuko gasen (karbono-neutraltasuna) isurketan neutraltasuna lortzeko, lurraldearen erresilientzia bermatuz eta klima-aldaketaren arloan erakundeen arteko koordinaziorako mekanismoak eta organoak ezarriz.		Se ha apoyado el proceso de tramitación de la “Ley de transición energética y cambio climático” para conseguir, entre otras cosas, la neutralidad en la emisión de gases de efecto invernadero (neutralidad en carbono) en el horizonte del 2050, asegurando la resiliencia del territorio y estableciendo los mecanismos y órganos de coordinación interinstitucional en materia de cambio climático.
Klima-aldaketara egokitzeko oinarriak ezarri dira LIFE IP Urban Klima 2050 proiektuaren bidez. Egokitzapen-neurri eraginkorrak ezarri dira, klimaren aldaketaren aurrean gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-sistemen esposizioa eta kalteberatasuna murrizteko eta haien erresilientzia hobetzeko; adibidez, naturan oinarritutako irtenbideak. Gainera, lurzoruan zein biomasan karbonoa (berdea eta urdina) xurgatzeko potentziala handitzen duten jarduerak garatu dira lurraldean, karbono-hustubide berriak sortuz edo xurgatzea errazten duten kudeaketa-teknikak aplikatuz.		La adaptación al cambio climático ha sentado sus bases a través del desarrollo del LIFE IP Urban Klima 2050. Se han implantado medidas de adaptación efectivas que reducen la exposición y la vulnerabilidad de los sistemas sociales, económicos y ambientales frente al cambio del clima y que mejoran su resiliencia, por ejemplo, soluciones basadas en la naturaleza. Además, se han desarrollado actuaciones que aumentan el potencial del territorio para la absorción de carbono (verde y azul), tanto en suelo como en biomasa, mediante la creación de nuevos sumideros de carbono o la aplicación de técnicas de gestión que favorecen su absorción.
Proiektu garrantzitsuen artean Kostaegoki dago, eta eremu kalteberak identifikatu eta monitorizatzeko (uholdeen, lur-jausien, olatuen eta itsas mailaren igoeraren eta denboraleen		Entre los proyectos relevantes está Kostaegoki que sirve para identificar y monitorizar las áreas vulnerables (ante inundaciones, desprendimientos, oleaje y subida del nivel del mar y temporales),

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
aurrean), ekintza-planak definitzeko eta inpaktuak murrizteko balio du.		definir planes de acción y reducción de los impactos.
Ekoberrikuntza PCTI2030en aukeretako bat da, eta eredu iraunkorrago baterako trantsiziorako estrategiarik garrantzitsuena. Klimatek proiektuak, ezagutza aurreratua transferitzeko eta klima-aldaketaren aurrean egokitzapenari eta erresilientziari buruzko erakusketa-proiektuak aurkezteko.		La Ecoinnovación supone uno de los nichos de oportunidad del PCTI2030 y la estrategia más relevante para la transición a un modelo más sostenible. Los proyectos Klimatek para la transferencia del conocimiento avanzado y para la presentación de proyectos de demostración en materia de adaptación y resiliencia ante el cambio climático.
Gainera, teknologia garbien euskal zerrenda berritzen ari da, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten laguntzen duen fiskalitate berdeko tresna gisa.		Además, se está renovando el listado vasco de tecnologías limpias como herramienta de fiscalidad verde que contribuye a la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero.
Herritarren sentsibilizazioari eta kontzientziazioari dagokienez, 150 jarduera baino gehiago ari dira garatzen Asteklima, Euskadiko Klima eta Energia Astearen esparruan.		En materia de sensibilización y concienciación ciudadana se están desarrollando más de 150 actividades en el marco de Asteklima, Semana de Clima y Energía de Euskadi.
Udal-eremuan hedatzeko lanaren barruan, 2030erako Udalsarearen esparruan Klima- eta Energia-planak egiten eta hedatzen ari dira, udal-mailan klimarako eta energiarako alkatetzen itunean parte hartzea sustatuz.		Dentro de la labor de despliegue en el ámbito municipal, se está contribuyendo a la elaboración y despliegue de Planes de Clima y Energía en el marco de la Red de Udalsarea 2030 incentivando la participación a nivel municipal en el Pacto de alcaldías para el clima y la energía.
• Klima-aldaketa, ekonomia zirkular eta erosketa berdearen alorrean mobilizatutako udalerri eta erakunde publikoak.	**200/ 205**	• Municipios y entidades públicas movilizadas en cambio climático, economía circular y compra verde.
• Murriztu beharreko BEG tonak, Ihoberen proiektuek bultzatuta.	**65.000/3.000**	• Ton de GEI a reducir, inducidas por proyectos Ihobe
• Hirugarrenen aurrekontua, klima- eta ingurumen-politikaren integrazio sektorialean mobilizatua (MM)	**130/168**	• Presupuesto de terceros movilizado en la integración sectorial de la política climática y ambiental (MM)
HE2. Ekonomia Zirkularra		**OE2. Economía circular**
2025erako, Euskadi 2030 Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren helburua da produktibitate materiala handitzea, material zirkularraren tasa % 11,7ra iristea eta sortutako hondakinen kopurua murriztea.		La Estrategia de Economía Circular Euskadi 2030 tiene por objeto para 2025 el incrementar la productividad material, llegar a una tasa de material circular del 11,7% y reducir la cantidad de residuos generados.
Estrategia Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021-2024 Plan Estrategikoaren bidez hedatzen ari da. Ihobek hainbat tresna kudeatzen laguntzen du, hala nola enpresei eta ETEei laguntzeko lerroa (Basque Ecodesign Center eta ETE Zirkularra barne), Basque Circular Hub esparruan enplegu zirkularra bultzatzea, teknologia garbien zerrenda eta estrategia hori gauzatzeko enpresei ematen zaizkien laguntzak.		La Estrategia se está desplegando a través del Plan Estratégico de Economía Circular y Bioeconomía 2021-2024. Ihobe contribuye a su despliegue a través de la gestión de instrumentos como la línea de apoyo a empresas y Pymes (incluyendo el Basque Ecodesign Center y PYME Circular), el impulso al empleo circular en el marco del Basque Circular Hub, el listado de tecnologías limpias y las ayudas a empresas para impulsar la ejecución de esta estrategia.
Bestalde, Basque Circular Hub sustatzen ari da, egoitza berriak ezarriz, gazteak ekonomia zirkularrean prestatzeko eta ezagutza euskal enpresa-sarera transferitzeko funtzio bikoitzean eragin handiagoa izateko eta Ekonomia Zirkularrean ekintzailetza bultzatzeko programa		Por otro, se está potenciando el Basque Circular Hub, estableciendo nuevas sedes con objeto de tener un mayor impacto en su doble función de formar a jóvenes en economía circular y de transferir conocimiento al tejido empresarial vasco y con la puesta en marcha de un programa específico de

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
espezifiko bat abian jarriz.		apoyo al emprendimiento en Economía Circular.
Gainera, Basque Circular Economy Summit 2022 ospatu da, eta Basque Ecodesign Meeting-en edizio berri bat ekarri du (ekitaldian zehar ekonomia zirkularrean ezagutza transferitzeko kanal nagusia). Enpresekin egindako lana indartu egin da Basque Ecodesign Center 2021-2025 Akordioaren lehen Jarduketa Planaren definizioarekin.		Además, se ha celebrado el Basque Circular Economy Summit 2022, que incluye una nueva edición del Basque Ecodesign Meeting, principal canal de transferencia de conocimiento en economía circular durante el ejercicio. El trabajo con las empresas se ha reforzado con la definición del primer Plan de Actuaciones del acuerdo 2021-2025 del Basque Ecodesign Center.
Ekonomia Zirkularreko ezagutzari eta tresnei buruzko atari berri bat abiarazi da ETEentzat, ingurumen-aztarnaren eta karbonoaren kalkulagailua txertatuz, bai eta Ekonomia Zirkularreko adierazleak kalkulatzeko tresna ere.		Se ha lanzado un nuevo portal de conocimiento y herramientas en Economía Circular para PYMEs, incorporando calculadora de Huella Ambiental y de Carbono, así como herramienta para el cálculo de indicadores de Economía Circular.
Bestalde, 2030erako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren esparruan, jarduera nabarmenak garatu dira, hala nola hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko zentroaren aurretiazko azterlanak idaztea, eraikuntza- eta eraispen-hondakinei, hondakinak errausteko zepei eta komunitateko konpostajeari buruzko araudirako konponketa-lanak egitea, eta hondakinak isurtzeko euskal kanona ezartzeari buruzkoak, Ingurumen Administrazioaren Lege berrian jasotakoak.		Por otra parte, en el marco del Plan de Prevención y Gestión de Residuos 2030 se han desarrollado actuaciones destacadas como la redacción de los estudios preliminares del Centro de gestión de residuos no peligrosos, los trabajos reparatorios para la normativa en materia de residuos de construcción y demolición, escorias de incineración de residuos y compostaje comunitario y los relativos a la implantación del canon vasco de vertido de residuos, recogido en la nueva Ley de Administración Ambiental.
Hondakinak kudeatzeari eta balorizatzeari eta materialak berrerabiltzeari ekitea, bai eta hondakinak ahalik eta gutxien ezabatzeko tresnak garatzea ere, besteak beste:		Abordar la gestión y valorización de residuos y la reutilización de materiales, así como desarrollar instrumentos para la minimización de la eliminación de los mismos trabaja actuaciones como:
• Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen birziklagarritasuna handitzea, besteak beste, erosketa publiko berdea sustatzeko eta lizitazio publikoetan hondakinen baloraziotik eratorritako azpiproduktuak erabiltzeko.		• Aumentar la reciclabilidad de los residuos de construcción y demolición, entre otras medidas incentivando la compra pública verde y la utilización en licitaciones públicas de subproductos derivados de la valoración de residuos.
• Azkenik, hondakinak prebenitzeko eta murrizteko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak bultzatzea, hala nola eko-eraginkortasunari buruzko ostegunak.		• Finalmente, impulsar campañas de información y sensibilización para la prevención y reducción de residuos como los jueves de ecoeficiencia.
• Hondakinak hondakindegitara isurtzea saihestea (tonak)	**100.000** **/20.000**	• Evitar el vertido de residuos a vertedero (Tn)
• Erosketa publiko berdean mobilizatutako aurrekontua (MM)	**600/690**	• Presupuesto movilizado en la compra publica verde (MM)
• Ihobek sostengatu dituen eta merkatuan ezartzen diren ekoberrikuntza-proiektuak.	**15/15**	• Proyectos de ecoinnovación apoyados por Ihobe que se implantan en el mercado
• Ekonomia zirkularrean trebatutako pertsonak.	**250/130**	• Personas formadas en economía circular.
• Ekonomia zirkularrean trakzionatutako	**320/230**	• Pymes traccionadas en economía circular

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
ETEak		
HE3. Ingurumenaren babesa		**OE3. Protección del medio ambiente**
2030erako Ingurumeneko Esparru Programa egitea 2022an garatutako funtsezko ekintzetako bat izan da. Klima-aldaketari aurre egitea, ekonomia zirkularra bultzatzea eta ingurumena babestea, Gobernu osoa integratzen duten ekintza eraldatzaileen bidez, funtsezkoa da aurrean ditugun erronkak gaindituko ditugula bermatzeko.		La elaboración del Programa Marco Ambiental 2030 ha constituido una de las acciones clave desarrolladas durante el 2022. Afrontar el cambio climático, impulsar la economía circular y proteger el medio ambiente a través de acciones transformadoras que integran a todo el Gobierno es clave para resolver con garantía los retos a los que nos enfrentamos.
Horretarako, funtsezkoa da Tokiko Agenda 2030en prozesuak bultzatzea eta indartzea. 2022an, 2030 Udalsarearen 2022-2024 plan estrategiko berria hedatzen hasi da, eta Eusko Jaurlaritzaren, Udalaren eta beste erakunde batzuen arteko akordioa berritu da, tokiko ekintza jasangarriaren alde.		Para ello resulta fundamental el impulso y fortalecimiento de los procesos de Agenda 2030 Local. Durante 2022, se ha empezado a desplegar el nuevo plan estratégico 2022-2024 de la Red Udalsarea 2030 y la renovación del acuerdo entre Gobierno Vasco, Ayuntamiento y otras entidades en favor de la acción local sostenible.
Ahalegin juridiko-teknikoak egin dira trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko lege berria eta ingurumenari buruzko beste erregelamendu-araudi bat egiten laguntzeko. Gainera, Sailari lagunduko zaio espedienteak (lurzoruak eta atmosfera) eta urteko diru-laguntzak izapidetzen, eta hobekuntzak identifikatuko dira administrazio-prozedurak Inguruneten integratzean.		Los esfuerzos jurídico-técnicos se han centrado en apoyar la elaboración de la nueva ley de transición energética y cambio climático, así como otra normativa reglamentaria ambiental. Además, se apoyará al Departamento en la tramitación de expedientes (suelos y atmósfera) y subvenciones anuales, identificando mejoras en la integración de procedimientos administrativos en Ingurunet.
Kutsatutako lurzoruen politikari dagokionez, orain arte, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen % 20 merkaturatu dira, pertsonen eta ingurumenaren osasuna bermatzeko ekintzak egin ondoren. Gaur egungo testuinguruan, euskal industriak azpiegituren eta industria-lurzoruaren euskarri egokia behar du. Hori dela eta, sail arteko eta erakunde arteko funts bat abian jartzea pentsatu da, kutsatutako eta degradatutako lurzoruen balioa nabarmentzea sustatzeko eta enpresa handi eta ertainak ixtearen edo lekuz aldatzearen ondorioz erabiltzen ez diren lurzoru edo industria-instalazioak jarduera ekonomikoetarako berrerabiltzea bultzatzeko.		Respecto a la política de suelos contaminados ha conducido a que, hasta el momento, el 20% de los suelos potencialmente contaminados se hayan incorporado al mercado una vez realizadas acciones que permiten garantizar la salud de las personas y del medio ambiente. En el contexto actual, la industria vasca necesita contar con un adecuado soporte de infraestructuras y suelo industrial, por lo que se plantea la puesta en marcha de un fondo interdepartamental e interinstitucional para promover la puesta en valor de suelos contaminados y degradados y el impulso de la reutilización para actividades económicas, de los suelos o instalaciones industriales en desuso como consecuencia del cierre o traslado de grandes y medianas empresas.
Horretarako, beharrezkoa da lurzoruaren kalitateari eta lurzoruaren inguruan artikulatzen diren erakundeei buruzko informazioaren sistema sendo bati eustea, eta arlo horretan irizpide eta gida metodologikoak sortzen jarraitzea.		Para ello, es necesario mantener un sistema robusto de la información sobre la calidad del suelo y las entidades que se articulan entorno a este, seguir generando criterios y guías metodológicas en esta materia.
Lurzorua babesteko 2030 Estrategiaren hedapenak, lehen aldiz baliabide horren babesari osoki heltzen dionak, lurralde-antolamenduko, etxebizitzako, ingurumen-kalitateko eta nekazaritzako sektore-jarduerak biltzen ditu, besteak beste, eta Ihobek haren idazkaritza tekniko gisa jardun du.		El despliegue de la Estrategia de protección del suelo 2030, que por vez primera aborda de forma integral la protección de este recurso integra actuaciones sectoriales de ordenación del territorio, vivienda, calidad ambiental, agricultura, entre otras, Ihobe ha actuado de secretaría técnica de la misma.
Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak hartu		Se han apoyado las investigaciones y actuaciones

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
dituzten lurzoruetan ikerketak eta jarduketak babestu ditu.		en suelos que hayan soportado actividades potencialmente contaminadoras del suelo.
Politikak integratzeko orduan, funtsezkoak dira aliantzak eta sareak eta lankidetzarako bideak ehuntzea hainbat eragile, foro eta erakunderekin, Euskadiren barruan eta kanpoan, bai eta presentzia aktiboa izatea nazioarteko sareetan ere, hala nola Regions4 (Euskadi buru dela), Under2 Coalition & The Climate Group edo ICLEI sareetan.		En la integración de las políticas son clave las alianzas y redes, tejiendo vías de cooperación con diferentes agentes, foros y entidades, dentro y fuera de Euskadi, y con presencia activa en redes internacionales como Regions4 (presidida por Euskadi), Under2 Coalition & The Climate Group o ICLEI.
2022an, halaber, jasangarritasunerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueren hedapena berrikusiko da euskal gizartean, Euskadiko 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategian jasotakoak; era berean, Tokiko Agenda 2030 prozesuen koordinazioa bultzatuko da, bai eta Ekoetxea Euskadiko ingurumen-zentroen sarea zabaltzea eta digitalizatzea ere.		Durante 2022 igualmente, se revisará el despliegue de actuaciones de educación y sensibilización para la sostenibilidad en la sociedad vasca recogidas en la “Estrategia de educación para la sostenibilidad 2030 del País Vasco”; de la misma manera se potenciarán la coordinación de los procesos de Agenda 2030 Local; así como la ampliación y digitalización de la Red de centros ambientales de Euskadi Ekoetxea.
• Ekoetxea zentroek izandako bisitariak.	**200.000 / 140.000**	• Visitantes a los centros ekoetxea.
• Ekoetxeak sareko zentro elkartu edo laguntzaile berriak.	**2/3**	• Nuevos centros asociados o colaboradores de la red ekoetxeak
• Berreskuratu diren lurzoru kutsatuen hektareak (Ihoberen laguntzarekin berreskuratuak)	**12/17**	• Hectáreas de suelos contaminados recuperados (con la colaboración de Ihobe)
• Ihoberen laguntzarekin kudeatutako espedienteen kopurua (isurien salerosketa, lurzoru kutsatuak eta ingurumen-baimen integratua)	**1.000 / 1.409**	• Número de expedientes gestionados con apoyo de Ihobe (comercio de emisiones, suelos contaminados y autorización ambiental integrada)
• Tokiko ekintza jasangarria Euskadin bultzatzeko akordio berriari eta Udalsarea 2030 - euskal udalerri jasangarrien sarearen jarduerei atxikitako udalerriak.	**200/ 205**	• Municipios adheridos al nuevo acuerdo para el impulso de la acción local sostenible en el País Vasco y las actuaciones de la red de municipios vascos sostenibles, Udalsarea 2030.
HE4. Kudeaketa publiko aurreratua		**OE 4 Gestión pública avanzada**
Ihoberen kudeaketa korporatiboa bat dator Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduarekin, besteak beste alderdi hauei dagokienez: estrategia, bezeroak, pertsonak, hornitzaileak, berrikuntza eta gizarte-erantzukizuna.		La gestión corporativa de Ihobe se ajusta al Modelo de Gestión Pública Avanzada del Gobierno Vasco en aspectos como la estrategia, los clientes, las personas, los proveedores, la innovación y la responsabilidad social.
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta euskararen erabileraren hazkundea izan dira Ihoberen jardunaren bereizgarrietako bi, 2022. urtean.		La igualdad entre hombres y mujeres y el incremento de uso del euskera han sido dos de los sellos de identidad de la forma de hacer de Ihobe durante 2022.
Komunikazioa funtsezkoa da oroitidazki honetan jasotako helburuak lortzeko. 2022an, Ihobek jardunean mantendu ditu bere kanal korporatiboak (webgunea eta sare sozialak), bere jardunaren emaitzei eta bere helburuen betetze mailari buruzko informazioa herritarrei eta eragileei puntualtasunez helarazteko.		Para la consecución de los distintos objetivos recogidos en la presente memoria la comunicación es fundamental. Durante 2022, Ihobe ha mantenido activos sus canales corporativos (web y redes sociales) para trasladar puntualmente a ciudadanía y agentes información acerca de los resultados de su actividad y del grado de cumplimiento de sus objetivos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
• Ihoberen digitalizazio planaren aurrerapen gradua - 2022ko ekintzak.	**100%/100%**	• Grado de avance en el plan de digitalización de Ihobe acciones de 2022.
• Kudeaketa publiko aurreratuaren ereduaren kontrastean identifikatutako hobekuntza-neurrien ezarpena.	**100%/100%**	• Implantación de las medidas de mejora identificadas en el contraste del modelo gestión pública avanzada.
• Euskara planaren aurrerapen gradua - 2022ko ekintzak.	**100%/75%**	• Grado de avance en el plan de euskera - acciones 2022
• 2022rako berdintasun planaren aurrerapen gradua - 2022ko ekintzak.	**100%/100%**	• Grado de avance en el plan de igualdad 2022 -acciones 2022.

3. 2023RAKO HELBURU OROKORRAK ETA HORIEN KUANTIFIKAZIOA

3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2023 Y SU CUANTIFICACIÓN

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
HE1. Klimaren aldeko ekintza		**OE1. Acción por el clima**
Ihobek ekintza klimatikoa bultzatuko du, tresnak garatuz eta arlo horretako politikak hedatzen lagunduz, eta klima-aldagaia politika sektorialetan txertatuz. 2030erako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planaren hedapena izango da EVErekin koordinatuta jarduteko esparru nagusia, 2050erako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren ibilbide-orri berriaren eragile guztien arteko partaidetza-diseinuarekin batera.		Ihobe impulsará la acción climática desarrollando herramientas y colaborando en el despliegue de las políticas en esta materia, e integrando la variable climática en las políticas sectoriales. El despliegue del Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2030, será el marco principal de actuación en coordinación con el EVE, junto con el diseño participado entre todos los agentes de la nueva Hoja de ruta de Transición Energética y Cambio Climático 2050.
Berotegi-efektuko gasen isuriak kontabilizatuko ditu eta klima-aldaketak lurraldean dituen ondorioak monitorizatuko ditu, eskuragarri dagoen informazio guztia hainbat eragilerentzat zerbitzu klimatiko gisa integratuz.		Contabilizará las emisiones de GEI y monitorizará los efectos del cambio climático en el territorio, integrando toda la información disponible en forma de servicios climáticos para los diferentes agentes.
Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legean sartutako tresnen diseinua bultzatuko du, hala nola, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Ekimenen Euskal Erregistroa, trantsizio energetikoaren eta aldaketa klimatikoaren herritarren batzarra edo zerga-sistema klimatikoa, besteak beste		Apoyará el diseño de las herramientas incluidas en la "Ley de transición energética y cambio climático", como son el Registro Vasco de Iniciativas de Transición Energética y Cambio Climático, la asamblea ciudadana de transición energética y cambio climático o la fiscalidad climática, entre otras.
Euskadik klima-aldaketara egokitzeko Europako misioan duen parte-hartzea dinamizatuko du, eta bere oinarriak ezarriko ditu klima-aldaketaren aurrean gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-sistemen esposizioa eta kalteberatasuna murriztuko dituzten egokitzapen-neurri eraginkorrak diseinatzeko, bai sektore publikoa, bai pribatua, bai euskal gizartea inplikatuz, klima-aldaketaren erresilientzia hobetze aldera. Jarduketa horiek garatzeko, Europa finantzatzeko aukerak LIFE IP URBAN KLIMA 2050 edo Horizon Europa Regions4Climate bezalako proiektuen bidez hedatzen dira.		Dinamizará la participación de Euskadi en la misión europea de adaptación al cambio climático sentará sus bases para diseñar las medidas de adaptación efectivas que reduzcan la exposición y la vulnerabilidad de los sistemas sociales, económicos y ambientales frente al cambio del clima y que mejoren su resiliencia implicando tanto al sector público como al privado, así como a la sociedad vasca. Las oportunidades de financiación europea para el desarrollo de estas actuaciones se despliegan a través de proyectos como el LIFE IP URBAN KLIMA 2050 o el Horizon Europa Regions4Climate.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Horrez gain, lurzoruan zein biomasan karbonoa (berdea eta urdina) xurgatzeko potentziala handitzen duten jarduerak garatuko ditu lurraldean, karbono-hustubide berriak sortuz edo xurgatzea erraztuko duten kudeaketa-teknikak aplikatuz.		Paralelamente, desarrollará actuaciones que aumenten el potencial del territorio para la absorción de carbono (verde y azul), tanto en suelo como en biomasa, mediante la creación de nuevos sumideros de carbono o la aplicación de técnicas de gestión que favorezcan la absorción.
EVEk eta Ihobek partekatutako tresnen gida bat egin ondoren, tokiko eta eskualdeko trantsizio energetikoa eta klimatikoa sustatzeko. Udalerriei eta eskualdeei laguntzeko estrategia bat zabalduko da, haien premien eta arlo horretan duten inplikazio-mailaren arabera, Udalsarea 2030en esparruan Klima eta Energia Planak egitea eta hedatzea sustatzeko, udalerriek klimarako eta energiarako alkatetzen itunean parte har dezaten sustatuz.		Tras la elaboración de una guía de herramientas compartidas entre EVE e Ihobe, para fomentar la transición energética y climática a escala local y comarcal. Se desplegará una estrategia de apoyo a los municipios y comarcas en función de sus necesidades y grado de implicación en esta materia para fomentar la elaboración y despliegue de Planes de Clima y Energía en el marco de Udalsarea 2030 incentivando la participación de los municipios en el Pacto de alcaldías para el clima y la energía.
Herritarren sentsibilizazioari eta kontzientziazioari dagokienez, jarduerak garatuko ditu Asteklima, Euskadiko Klima eta Energia Astearen esparruan.		En materia de sensibilización y concienciación ciudadana, desarrollará actividades en el marco de Asteklima, Semana de Clima y Energía de Euskadi.
Ekoberrikuntza PCTI2030en aukeretako bat da, eta eredu iraunkorrago baterako trantsiziorako estrategiarik garrantzitsuena. Ihobek Ekoberrikuntzari dagokion idazkaritza-lana egiten jarraituko du, eta aukera-esparruak lehenetsiko ditu. Bestalde, Klimatek proiektuak, klima-aldaketaren aurrean egokitzapenari eta erresilientziari buruzko ezagutza aurreratua sortzeko eta transferitzeko.		La Ecoinnovación supone uno de los nichos de oportunidad del PCTI2030 y la estrategia más relevante para la transición a un modelo más sostenible. Ihobe continuará ejerciendo la labor de secretaria del nicho de Ecoinnovación y priorizará los ámbitos de oportunidad. Por otra parte, los proyectos Klimatek para la generación y transferencia del conocimiento avanzado en materia de adaptación y resiliencia ante el cambio climático.
Gainera, teknologia garbien euskal zerrenda berrituko du, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten eta bigarren mailako materialak aprobetxatzea laguntzen duen fiskalitate berdeko tresna gisa.		Además, se renovará el listado vasco de tecnologías limpias como herramienta de fiscalidad verde que contribuye a la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero y el aprovechamiento de materiales secundarios.
• Klima eta Energia Planak dituzten udalerrien %	**25**	• % Municipios con Planes de Clima y Energía
• IHOBE proiektuek eragindako BEG (Ton) murriztea	**40.000**	• Reducción de GEI (Ton), inducidas por proyectos Ihobe
• Klima- eta ingurumen-politikaren sektore-integrazioan mobilizatutako hirugarrenen aurrekontua (MM)	**70**	• Presupuesto de terceros movilizado en la integración sectorial de la política climática y ambiental (MM)
• Ihoberen laguntzarekin berreskuratutako lurzoru kutsatuak (hektareak)	**5**	• Suelos contaminados recuperados, con la colaboración de Ihobe (Hectáreas)
HE2. Ekonomia Zirkularra		**OE2. Economía circular**
Euskadi 2030 Ekonomia Zirkularraren Estrategia hedatzen jarraituko da hurrengo 4 urteetan, Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021-2024 Plan Estrategikoaren bidez. Ihobek enpresei (Basque Ecodesign Center) eta ETEei (ETE Zirkularra Euskadi), enplegu zirkularrari (Basque Circular Hub), ekoberrikuntzaren sustapenari eta enpresentzako laguntzen kudeaketari laguntzeko ekimenak sustatzen jarraituko du.		La Estrategia de Economía Circular Euskadi 2030 continuará su despliegue en los próximos 4 años a través del Plan Estratégico de Economía Circular y Bioeconomía 2021-2024. Ihobe seguirá impulsando iniciativas de apoyo a empresas (Basque Ecodesign Center) y Pymes (PYME Circular Euskadi), al empleo circular en el marco del Basque Circular Hub, el fomento de la Ecoinnovación y la gestión de ayudas a empresas.
2023ko ekitaldirako erronka nagusiak hauek dira:		Los principales retos para el ejercicio del 2023 son:

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Industria-sektoreari bereziki zuzendutako programa espezifiko bat definituko da, materialen eraginkortasuna % 30 handitzeko, ekoizpen-eredu berriak hobetuz eta garatuz, eta industria-produktuen ekodiseinua sendotuz.		Se definirá un programa específico dirigido especialmente al sector industrial para aumentar en un 30% la eficiencia de materiales, mediante la mejora y el desarrollo de nuevos modelos de producción, y el fortalecimiento del ecodiseño de productos industriales.
Bestalde, ekoberrikuntza indartuko da zaintza-sistema berri bat sortuz: Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Behatokia, zaintza-tresna eta -txostenez gain, Ekonomia Zirkularreko aukeretan espezializatutako think-tank bat eta enpresa-proiektu berrien fabrika bat abian jarriko dira.		Por otro lado, se reforzará la Ecoinnovación a través de la creación de un nuevo sistema de vigilancia, el Observatorio de Economía Circular de Euskadi, que además de herramientas e informes de vigilancia, pondrá en marcha un think-tank especializado en oportunidades de Economía Circular y una fábrica de nuevos proyectos empresariales.
Halaber, Basque Circular Hub sustatuko da, egoitzak ezarriz lurralde guztietan, gazteak ekonomia zirkularrean prestatzeko eta ezagutza euskal enpresa-sarera transferitzeko funtzio bikoitzean eragin handiagoa izateko eta Ekonomia Zirkularrean ekintzailetza bultzatzeko programa espezifiko bat abian jarriz.		A su vez, se potenciará el Basque Circular Hub, estableciendo sedes en todos los territorios con objeto de tener un mayor impacto en su doble función de formar a jóvenes en economía circular y de transferir conocimiento al tejido empresarial vasco y con la puesta en marcha de un programa específico de apoyo al emprendimiento en Economía Circular.
Enpresekiko lana indartu egingo da Euskadiko ETE Zirkularra ekimenak eta Basque Ecodesign Centerren lana sendotuz, bi programen arteko sinergiak ezarriz eta hornidura-katean zehar iraunkortasuna ebaluatzeko sistema bat diseinatuz. Era berean, kontzeptu horiek euskal ETEetan integratzea errazteko, Ingurumen Aztarna eta Karbonoa kalkulatzeko eta Ekonomia Zirkularreko adierazleak kalkulatzeko tresna integratu berri bat jarriko da abian.		El trabajo con las empresas se verá reforzado con la consolidación de las iniciativas Pyme Circular Euskadi y el trabajo del Basque Ecodesign Center, estableciendo sinergias entre ambos programas y diseñando un sistema de evaluación de la sostenibilidad a lo largo de la cadena de suministro. De igual modo, para facilitar la integración en las PYMEs vascas de estos conceptos, se pondrá en marcha una nueva herramienta integrada de cálculo de Huella Ambiental y de Carbono, así como para el cálculo de indicadores de Economía Circular.
Beste alde batetik, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Plana hedatzen jarraituko du jarduera nabarmenekin, hala nola plastikoaren plataforma definitzeko eta fokuratzeko lanak egitea Euskadin, hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko etorkizuneko zentrorako lanekin jarraitzea eta Teknologia Garbien Euskal Zerrendarako agindu eguneratu berri bat argitaratzea		Por otra parte, se continuará con el despliegue del Plan de Prevención y Gestión de Residuos 2030, con actuaciones destacadas como los trabajos de definición y enfoque de la plataforma del plástico en Euskadi, la continuación de los trabajos para el futuro Centro de gestión de residuos no peligrosos y la publicación de una nueva orden actualizada para el Listado Vasco de Tecnologías Limpias.
Euskadiko ehun sozioekonomikoan Ekonomia Zirkularra sustatzen jarraituko du, Ekostegunak – Ekoeraginkortasunari buruzko ostegunak izeneko prestakuntza-jardunaldiak garatuz eta produktu zirkularren erakusketa ibiltaria garatuz.		Se continuará con la promoción de la Economía Circular en el tejido socioeconómico de Euskadi, con el desarrollo de jornadas formativas en el marco de los Ekostegunak – Jueves de Ecoeficiencia y con el desarrollo de una exposición itinerante de productos circulares “made in Euskadi”.
• Isurtzea saihesten den hondakin-kopurua (Ihobek induzituak, Tn-tan)	**40.000**	• Cantidad de residuos que se evita su vertido (inducidas por Ihobe, en Tn)
• Erabakiak hartzeko ezagutza sortzea (Ihobek bultzatutako ekintzak)	**20**	• Generación de conocimiento para la toma de decisión (acciones impulsadas por Ihobe)
• Ekonomia zirkularrean eta klima-aldaketan mobilizatutako enpresen kopurua	**350**	• N.. de empresas movilizadas en economía circular y cambio climático
• Ihobek prestatutako eta enpresa-praktikak egiten dituzten gazteen kopurua	**50**	• N.. jóvenes formados por Ihobe que realizan prácticas empresariales

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
HE3. Ingurumenaren babesa		**OE3. Protección del medio ambiente**
2030erako Ingurumeneko Esparru Programaren lehen proiektu eraldatzaileak abian jartzea izango da 2023an garatu beharreko funtsezko ekintzetako bat. Zehazki, Ihobek, SPRIrekin batera, euskal enpresaren ingurumen-lehiakortasunari buruzkoak abiarazten eta taxonomia finantzarioa aplikatzen lagunduko du.		La puesta en marcha de los primeros proyectos transformadores del Programa Marco Ambiental 2030 constituirá una de las acciones clave a desarrollar durante el 2023. En concreto, Ihobe apoyará junto a SPRI, el lanzamiento de los relativos a competitividad ambiental de la empresa vasca y la aplicación de la taxonomía financiera.
Ahalegin juridiko-teknikoen helburua izango da trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko lege berriaren izapidetze parlamentarioa babestea, bai eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen, errausketa-zepen eta abarren arloko ingurumeneko beste araudi bat ere. Horrez gain, Sailari laguntza emango zaio lurzoruaren kalitate-prozedura izapidetzeko eta urteko dirulaguntzak kudeatzeko.		Los esfuerzos jurídico-técnicos se centrarán en apoyar la tramitación parlamentaria de la nueva ley de transición energética y cambio climático, así como otra normativa reglamentaria ambiental en materia de residuos de construcción y demolición, escorias de incineración, etc. Además, se apoyará al Departamento en la tramitación del procedimiento de calidad del suelo y de la gestión de las subvenciones anuales.
Ihobek idazkaritza tekniko gisa jarduten du 2030erako Lurzorua Babesteko Estrategiaren hedapenean; estrategia helburu hau lortzera bideratuko da: “Euskadiko lurzoru guztiak modu jasangarrian kudeatzen dira, eta, aldi berean, mehatxuei arrakastaz aurre egiten zaie, osasuna bermatuz eta, horrela, etorkizuneko belaunaldiek erabiltzeko epe luzerako lurzoruaren funtzioak bermatuz”		El despliegue de la Estrategia de protección del suelo 2030, en el que Ihobe actúa como secretaría técnica, se enfocará la consecución de la visión definida “Todos los suelos de Euskadi son gestionados de forma sostenible a la vez que las amenazas se afrontan con éxito garantizando así la salud y con ello, las funciones del suelo a largo plazo para su uso por las generaciones futuras”
Zeharkako lan-ildoak hedatzeaz gain (jakintza sortzera, gobernantza hobetzera eta lurzoruaren babesaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzera bideratutakoak), ezarritako ekintzak koordinatuko dira honako esparru hauetan: lurralde-plangintza, natura-ingurunea, nekazaritza-sektorea, industria-jatorriko lurzoru kutsatuak, induskatutako lurzoruak eta ekonomia zirkularra, eta klima-aldaketa arintzea eta hari egokitzea.		Además del despliegue de las líneas de trabajo transversales orientadas a generar conocimiento, mejorar la gobernanza y fomentar la formación y sensibilización en materia de protección del suelo, se coordinarán las acciones implantadas desde los ámbitos temáticos de: planificación territorial, medio natural, sector agrario, suelos contaminados de origen industrial, suelos excavados y economía circular y mitigación y adaptación al cambio climático.
Horrez gain, Ihoberen eta SPRILURen arteko lankidetza-esparruak jarduera ekonomiko berrietarako lehentasunezkoak diren eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak berreskuratzeko eta berrerabiltzeko jarduerak jasotzen ditu, hala nola Etxe-Uli, Burtzeña, Fundifest eta Playabarri-Sakoni, indusketaren eta isurketaren ordezko erremediatze-teknologien erabilera sustatuz.		Adicionalmente, el marco de colaboración entre Ihobe y SPRILUR, se contemplan las actuaciones de recuperación y reutilización de suelos potencialmente contaminados prioritarios para nuevas actividades económicas, como son Etxe-Uli, Burtzeña, Fundifest y Playabarri-Sakoni, fomentando la utilización de tecnologías de remediación alternativas a la excavación y el vertido.
2023an, lurzorua babesteko nazioarteko ekitaldi bat antolatu zen, eta, horri esker, beste eskualde batzuetako esperientziak transferitu ahal izango dira arlo horretan, eta Euskadi aitzindaria izango da eremu horretan.		La organización en 2023 de un evento internacional en materia de protección del suelo ofrecerá la oportunidad de transferir experiencias de otras regiones en esta materia y posicionar a Euskadi como una región pionera en este ámbito.
Politikak integratzeko orduan, funtsezkoak dira aliantzak eta sareak eta lankidetzarako bideak ehuntzea hainbat eragile, foro eta erakunderekin, Euskadiren barruan eta kanpoan, bai eta presentzia aktiboa izatea nazioarteko sareetan ere, hala nola Regions4 (Euskadi buru dela), Under2 Coalition & The Climate Group edo ICLEI sareetan.		En la integración de las políticas son clave las alianzas y redes, tejiendo vías de cooperación con diferentes agentes, foros y entidades, dentro y fuera de Euskadi, y con presencia activa en redes internacionales como Regions4 (presidida por Euskadi), Under2 Coalition & The Climate Group o ICLEI.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
2023an, "EAEko 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren" bigarren ekintza-plan eguneratuaren esparruan, Ekoetxea ingurumen-zentroen sarearen hedapen estrategikoan aurrera egingo da, zentro propioekin, elkartuekin edo laguntzaileekin akordio berriak eginez. Gainera, herritarrei zuzendutako ingurumen-sentsibilizazioko eta -hezkuntzako zerbitzu hibrido berrien diseinuan pilotatu eta aurrera egingo da. "Erronka Garbiaren" kudeaketari dagokionez, egoitza eta erakunde berriekin lan egingo da esparruen ziurtagiriaren ezarpenean aurrera egiteko, ekitaldiak egitean jardunbide egokiak hartzea eta ingurumen-inpaktuak murriztea errazteko bitarteko gisa.		Durante 2023 en el marco del segundo plan de acción actualizado de la "Estrategia de educación para la sostenibilidad 2030 del País Vasco" se avanzará en el despliegue estratégico de la Red de centros ambientales Ekoetxea, mediante nuevos acuerdos con centros propios, asociados o colaboradores. Además, se pilotarán y avanzará en el diseño de nuevos servicios híbridos de sensibilización y educación ambiental dirigidos a la ciudadanía. En relación con la gestión de "Erronka Garbia" se trabajará con nuevas sedes y entidades para avanzar en la implantación del certificado de recintos como medio para facilitar la adopción de buenas prácticas en la celebración de eventos y la reducción de impactos ambientales.
Behin "2030erako Udalsarea, Udalerri Jasangarrien Sarea" akordioa berrituta, bere Plan Estrategiko berriaren proiektu eta zerbitzuak hedatuko ditu 2023rako, Tokiko Agenda 2030en ezarpena indartze aldera. Gainera, lan-taldeak eta beste ekintza espezifiko batzuk bultzatuko dira tokiko ekintza jasangarria errazteko klima-aldaketaren, ekonomia zirkularraren eta jasangarritasuna bultzatzeko beste ekintza batzuen arloan.		Una vez renovado el acuerdo de "Udalsarea 2030, Red de municipios sostenibles" se desplegarán los proyectos y servicios de su nuevo Plan Estratégico durante el ejercicio 2023, con objeto de fortalecer la implantación de la Agenda 2030 Local. Además, se impulsarán grupos de trabajo y otras acciones específicas para facilitar la acción sostenible local en materia de Cambio Climático, Economía Circular y otras acciones de impulso a la sostenibilidad.
Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea bultzatzeari dagokionez, lizitazioetan ingurumen-klausulak sartzeko mailak hobetzen jarraituko da, Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030eko Programarekin konprometitutako eragile publiko eta pribatuak dinamizatuz, eta, zehazki, 2022an eratutako Eusko Jaurlaritzaren lantaldea dinamizatuz, besteak beste.		En relación con el impulso a la Compra y Contratación Pública Verde se seguirá avanzando en mejorar los niveles de inclusión de cláusulas ambientales en las licitaciones, mediante la dinamización de agentes públicos y privados comprometidos con el Programa de Compra y Contratación Verde 2030, en concreto dinamizando el grupo de trabajo de Gobierno Vasco constituido en 2022, entre otras actuaciones.
